




8.

Maila anitzeko Jarraipen Txostena

2030 Agenda Euskadi

2024





Aurkibidea

Aurkezpena

Lehen zatia. 2024. urtearen ikuspegi panoramikoa

1.- Testuinguru globalaren balorazioa

2.- Euskadiren 2024ko ekarpenaren azterketa globala

GJHekiko herrialde-konpromisoa

Bultzada eta gobernantza partekatuak

2021-2024 aldirako Lehentasunen Programa

Bultzatu 2050 Hiri Agenda

GJHak EAEko udalerrietan lokalizatzeko bultzada

Eraldatze-prozesuarekin eta giza garapen jasangarriarekin konprometitutako herritartasun aktiboa eta kontzientea sortzeko sentsibilizazioa

Lurraldeko eragileen artean berrikuntza eta gaitasunak sortzea, haien antolakundeetan jasangarritasuna integra dezaten eta eragile anitzeko lankidetzarako presta daitezen

Inbertsio publikoa eta pribatua lurraldea eraldatzeko ibilbide-orrietarantz erakartzea

Adierazle-sistema

GJH-ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontugintza eta kontratazio publikoak

Nazioarteko esparruko ekintzetan aktiboki parte hartzea eta beste lurralde batzuekin lankidetzan jardutea

18. GJHa (Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna) txertatzea

Bigarren zatia. Garapen jasangarrirako helburu bakoitza garatzeko 2024. urtean hedatutako eraldatze-ekintzak

Hirugarren zatia. Ondorioak. 2025. urterako helburuak

Eranskinak

I. eranskina-Eusko Jaurlaritzaren 2025eko aurrekontua
GJHein lerrokatzeari buruzko txostena

II. eranskina- Adierazleen estatistika-eranskina

Aurkezpena

Hauxe da Eusko Jaurlaritzak aurkezten duen Euskadi 2030 Agendaren Borondatezko Zortzigarren Jarraipen Txostena. Datu hori 2016ko azaroaren 24an hasitako ibilbidearen isla da. Egun hartan, Urkullu lehendakariak inbestidura-hitzaldia eman zuen Eusko Legebiltzarrean, eta Agenda global berriarekiko euskal konpromisoa aldarrikatu zuen.

2018ko apirilean, Eusko Jaurlaritzak Euskadi Basque Country 2030 Agendaren Borondatezko lehen Jarraipen Txostena aurkeztu zuen, 2017. urteari buruzkoa. Txosten horrek, lehen urrats gisa, 2030 Agendaren helburuak eta jomugak Gobernu Programaren konpromisoekin lotu zituen. Horrela, Euskadikoa izan zen ezaugarri horiek zituen txosten bat aurkeztu zuen estatuz azpiko lehen gobernu. Harrezkero, urtero aurkezten jarraitu du, zortzigarren edizio honetara iritsi arte.

XI. legegintzaldian 2016az geroztik egindako lanari jarraipena emateko, 2021eko ekainean, Eusko Jaurlaritzak **2021-2024 aldirako 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa** onartu zuen.

Programa honen misioa izan da kontratu sozialaren kultura sustatzea, Garapen Jasangarriko Helburuekiko konpromisoaren inguruan. Programaren helburu nagusiak honako hauek izan dira: barneko gizarte-kohesioari laguntzea, bakearen, justiziaren eta jasangarritasunaren aldeko nazioarteko ahaleginik onenen parte izatea, politiken koherentzia sustatzea eta 2030 Agenda lehentasun eraldatzaileak bultzatzeko konpromiso gisa hartzea.

Esparru horren barruan, 2021-2024 aldirako 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programak 4 ardatz ezartzen zituen: dibulgazioa, koordinazioa, ebaluazioa eta lehenespena. Koordinazioaren ardatza nabarmendu behar da, horren barruan sortu baita 2030 Agenda Euskadi Foroa (maila anitzekoa eta eragile anitzekoa), Garapen Jasangarriko Helburuak erdiesteko gobernantzaren eta instituzioen eta gizartearen arteko lankidetzaren esparru nagusi gisa. Eusko Jaurlaritzako sailak, hiru foru-aldundiak, EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte), hiru hiriburu-eta udalak, euskal unibertsitateak eta lankidetzak publiko-pribatuaren eta gizarte zibil antolatuen ordezkari diren entitateak biltzen ditu foro horrek.

Aurrera egiteko elementu handien artean, 2024an zehar **GJHen aldeko Euskal Aliantza** finkatu izana nabarmendu behar da, 100 entitatek baino gehiagok 2030 Agendaren garapenean laguntzeko izenpetu zutena. Aliantza hori 5 konpromiso handi finkatzen dituen “2030 Agenda Euskadi Kontratu Sozial baterako” adierazpenaren inguruan artikulatzen da. Entitate horiek konpromisoen inguruko aliantza osatzen dute elkarrekin aurrera egiteko. Honako hauek dira konpromisoak:

- Gizarte-antolakundearen arteko lankidetzak indartzea, baita antolakunde horien eta instituzioen artekoa ere.
- Enpresa eta antolakundearen kudeaketan eta barne-funtzionamenduan GJHak inplementatzea.

- 2030 Agenda ezagutaraztea eta sustatzea, eta herritarren parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzea.
- Elkartasun- eta jasangarritasun-printzipioak bultzatzea, 2030 Agendaren oinarri gisa.
- EAEko esperientzia modelizatzea eta nazioartean trukatzeko bidea ematea.


Aurrera egiteko elementuen artean, nabarmentzekoa da **Borondatezko zortzigarren Jarraipen Txosten hau herrialde gisako ikuspegi globala txertatzen duen bigarrena dela**. Alde batetik, Euskadik 2030 Agendarekin eta GJHein hartu duen konpromisoa konpromiso globala delako, bere instituzio guztiena eta gizarte- eta enpresa-eragileen sorta zabalarena eta euskal herritarrena berena, horiek baitira egunez egun, beren eguneroko erabaki eta portaerekin, GJHak erdiesten laguntzen dutenak. Eta, bestetik, maila anitzeko eta eragile anitzeko inplikazioaren bidez lor daitekeen inpaktu erantsia delako, hain zuzen ere, Euskadik munduari erakutsi nahi dion elementu diferentzial nagusia.

Ezin dugu ahaztu 2024an izan den oso garrantzi handiko beste gertaera bat, Euskadiri ez ezik, mundu osoko udalerrri eta eskualdeei ere GJHen lokalizazioaren arloan mesede egingo diena. 2022ko amaieran **Bilbo Local 2030 Koalizioaren Idazkaritzaren egoitza** izendatu ondoren, 2024an azkenik abian jarri da GJHak eta 2030 Agenda lokalizatzeko jarduerak hirietatik, gober-

nu autonomiko eta nazionaletatik eta sektore pribatutik sustatzeaz arduratzen den Nazio Batuen bulego hori.

2024. urtea amaitzeko, 2021-2024 aldirako 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren balantzea egin dugu, eta **Gizarte Berrikuntzaren eta 2030 Agendaren 2025-2028 Plana** egiteko lanak amaitu dira. Plan hori izango da, hain zuzen, Euskadin Garapen Jasangarrirako Helburuak 2030 Agendaren bitartez lortzea bizkortzeko lana gidatuko duen ibilbide-orria.

Adierazi behar dugu, azkenik, Borondatezko 8. Jarraipen Txosten honen **eranskin gisa** eskaintzen dela **Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren Adierazleen Euskal Sistemari buruzko informazio zehatza** eta adierazle bakoitzaren azken datu erabilgarriak jasotzen dituen txostena.



Lehen zatia

Euskadik 2024an 2030 Agenda globalari egindako ekarpena: ikuspegi panoramikoa

Hurrengo orrialdeetan laburbilduta erakusten dira 2024an Euskadik 2030 Agenda globalari egindako ekarpenaren zeharkako elementu nagusiak.

Ekarpen hori aztertzeko, **2024. urtean 2030 Agenda globala garatu den nazioarteko testuinguruaren aldez aurreko azterketa** hartzen da abiapuntutzat. Bertan, Etorkizunaren Gailurra nabarmentzen da (New York, 2024ko iraila), Itun Digital Globala eta Etorkizuneko Belaunaldiei buruzko Adierazpena jasotzen dituen Etorkizunerako Ituna onartzeko balio izan duena.

Testuinguruan kokatzeko azterketa horren ondoren, **Euskadik 2024an Agenda globalari egindako ekarpenak** ekarri duenaren zeharkako balantzea egiten da, haren jarduketa-esparruen bitartez azaldua.

1. Nazioarteko testuinguruaren balorazioa, 2030 Agenda betetzeari dagokionez

2019an nazioartean adostasun handia zegoen GJHak betetzeari buruzko diagnostikoaren inguruan: 2030 Agendak bultzatutako eraldatze-prozesua ez zen behar bezain azkarra, eta ez zuen behar adinako inpakturik. Izan ere, horregatik, urte hartako irailean, Nazio Batuen 74. Batzar Nagusian, idazkari nagusi Antonio Guterresek gobernuei, enpresei eta gizarte zibilari dei egin zien, helburu globalen gaineko ekintza areagotu zezaten, eta hurrengo 10 urteak Ekintzaren Hamarkada deklaratu zituen.

Diagnostiko hori 2023ko irailean New Yorken egin zen Garapen Jasangarri-rako Helburuei buruzko Gailurrean errepikatu zen. Parte hartu zuten eragileek onartu zuten Garapen Jasangarri-rako Helburuak (GJH) ez direla lortuko, baldin eta trantsizio energetiko, elikagaien arloko eta digital bidezkoak eta ekitatiboak lortzeko eta garapen-bidean dauden herrialdeetan hezkuntza eta gizarte-babesa eraldatzeko behar den inbertsioari bultzada masiboa ematen ez bazaio. Horretarako, beste zenbait ekintza-ildoren artean, multilatera-lismoarekiko konpromisoa berritu zen, elkarrekin lan egiteko modu berriak aurkitzeko eta instituzio multilateralek gertatzen ari diren aldaketa azkarren erritmoari jarraituko diotela bermatzeko, eta 2024ko Etorkizunaren Gailurra ezarri zen 2030 Agendaren eta bere GJHen inplementazioa azeleratzeko aukera garrantzitsu gisa.

2024ko irailean New Yorken egin zen **Etorkizunaren Gailurra** 3 tresnatan he-zurmamitu da (Etorkizunerako Ituna, Munduko Itun Digitala eta Etorkizuneko Belaunaldiei buruzko Adierazpena). Tresna horiek aukera berriak irekitzen dituzte herri eta nazio guztientzako mundu-ordena jasangarri, bidezko eta baketsu baterako, Garapen Jasangarri-rako Helburuen inplementazioa bultzatzeko funtsezko gaiak azpimarratuz, hala nola:

- Nazioarteko finantza-arkitektura erreformatzeko akordio bat, garapen-bidean dauden herrialdeak hobeto ordezkatu eta zerbitzatu ditzan.
- Giza aurrerabidea neurtzen dugun modua hobetzea, BPGaz haratago joanez gizakien eta planetaren ongizatea eta jasangarritasuna haute-mateko.

- Balio handiko ondarea duten pertsonen gutxieneko zerga-maila globala ezartzeko moduak kontuan hartzeko konpromisoa.
- Temperatura globalaren igoera industriaurreko mailen gainetik 1,5 °C-ra mugatzeko eta energia-sistemetan erregai fosilak erabiltzeari uzteko beharra berrestea, 2050ean zero emisio garbiak lortzeko.
- Teknologiaren diseinua, erabilera eta kudeaketa guztion onerako izan dadin lortzeko konpromisoa.
- Gure erabakiak hartzean etorkizuneko belaunaldiak kontuan izateko neurri zehatzak.
- Giza baliabideen, genero-berdintasunaren eta emakumeen ahalduentzearen arloko lana indartzea.
- Gobernantza globalean interesa duten beste alderdi batzuen parte-hartzearen garrantzia errekonozitzea, tokiko eta eskualdeko gobernuak, gizarte zibila, sektore pribatua eta beste batzuk barne.
- Inklusio digitala sustatzeko 1.050 milioi dolarreko ekarpena egiteko promesa.

Lan-ildo horiek guztiak funtsezkoak izango dira 2030erako planteatutako jomuga globaletara iritsi ahal izateko.

Gainera, uztailean Garapen Jasangarriari buruzko Goi Mailako Foro Politikoa garatu zen, "2030 Agenda indartzea eta krisi anitzeko garaietan pobrezia desagerraraztea: soluzio jasangarri, erresiliente eta berritzaileen aplikazio eraginkorra" lemapean. Ekitaldi horretan sakonki berrikusi ziren helburu hauek: 1. helburua (Pobrezia desagerraraztea), 2. helburua (Goserik ez), 13. helburua (Klimaren aldeko ekintza), 16. helburua (Bakea, justizia eta instituzio sendoak) eta 17. helburua (Helburuak lortzeko aliantzak).

2. Euskadiren 2024ko ekarpenaren azterketa globala

GJHekiko herrialde-konpromisoa

2016az geroztik, euskal instituzioek eta euskal gizarteko eragile nagusiek 2030 Agendak adierazten duen konpromiso globala hartu dute lehentasuntzat, eta gure tokiko errealitatera egokitu dute, eraldaketaren eta elkartasunaren ikuspegia aintzat hartuta. Horrela, Euskadik 2030 Agendaren helburuetarantz aurrera egingeko konpromisoa hartu du, eta, eginkizun horretan, garapena eta berdintasuna sustatuko ditu eta pertsona guztientzako etorkizun inklusiboagoa eta jasangarriagoa finkatuko du, eta konpromiso hori errealitate bihurtzeko behar diren tresnak jarri ditu abian.

Konpromiso hori **“GJHen lokalizaziorako euskal konpromisoaren eredua”** dokumentuan islatuta geratzen da. Eredua horrek honako elementu nagusi hauek ditu:

Proaktibitatearen printzipioa

2030 Agendarekiko konpromisoa programa propioak GJHein atxikitzea eta formalki lerrokatzea baino gehiago da. Horrek esan nahi du geure buruari galdetu behar diogula zertan aldatzen dituzten GJHek gure aurretik zeuden politikak eta jarduteko moduak. Horretan datza eraldatzeko gaitasuna.

ZEHATZA DENAREN METODOLOGIAREN APLIKAZIOA

GJHek zehaztasun gehiago eta abstrakzio gutxiago behar dute. Hitzetatik ekintzetara pasatu beharra dago, eta helburuak betetzera hurbilduko gaituzten proiektu zehatzetan hezurmamitu. Kontua ez da 17 helburuetarako proiektuak edukitzea, lehentasunak eta trakzio-proiektuak definitzea baizik.

“LOKALIZAZIO” KONTZEPTUAREN OSOTASUNA

1.- Lokalizazioa, lehenik, instituzionalizazio handiagoaren konpromisoa da. Alderdi praktikoenean, gutxienez 4 azpiegitura artikulatu behar dira, instituzio- eta antolakunde-ikuspegitik GJHen garapen exekutiboarekiko konpromisoa har dezaten:

- GJHen arloko zeharkako zuzendaritza- eta koordinazio-organo betearazlea sortzea, edozein instituzioren edo antolakunderen gobernu-ekintza gidatzeko.
- Plangintza estrategikoko dokumentuak izatea, helburuak, irizpideak, lehentasunak, jarduketan-planak, egutegiak eta aurrekontu-lerrokatzea barne hartzen dituztenak.
- Ebaluazio-tresna efizienteak prestatzea eta erabiltzea, hala nola norberaren errealitatera egokitutako adierazleak, urteko memoriak edo urteko jarraipenaren borondatezko txostenak.
- Gobernantza-ereduak eta instituzioen eta gizartearen arteko lankidetzak zabala sustatzea, eta horietan parte hartzea.

2.- Lokalizazioa, bigarrenik, sozializazio handiagoaren konpromisoa da. Gizartean GJHen inguruko ezjakintasun handia dagoenez, lehentasunez jotzen da 2030 Agendaren zabalkundea eta gizarte-eragileen inplikazioa sustatzera bideratutako baliabideak eta ahaleginak inbertitzea, honako hauen gisako tresnen bitartez:

- Komunikazio-kanpainak edo -ekimenak.
- Dibulgazio-ikastaroak eta argitalpenak.
- Gizarte-dibulgaziorako eta herritarren partaidetzarako dirulaguntzak.

- Tresna didaktikoak.
- Prestakuntza espezializatua.
- Gizarte-lankidetzako aliantzak.

3.- Lokalizazioa, hirugarrenik, pertsonalizazio handiagoaren konpromisoa da. 2030 Agenda gure eguneroko bizitzan, maila indibidualean zein familian edo maila pribatuan, eragina duen interpelazio pertsonala ere bada. GJHen instituzionalizazioak eta sozializazioak kontuan izan behar du hirugarren dimentsio hori. Herritarren parte-hartze eta inplikazio aktibo eta informaturik gabe, arriskuan egon daiteke Agendaren etorkizuna

LANKIDETZA, GJH-ETAN AURRERA EGITEKO FUNTSEZKO OINARRIA

Lankidetza funtsezkoa da GJHetan aurrera egiteko. 2030 Agenda hartu zenetik, sektore bakar batek ere helburu horiek bere kabuz lortu ezin dituela onartu da. Gobernuen, sektore pribatuaren, gizarte zibilaren eta nazioarteko antolakundearen arteko lankidetza funtsezkoa da aurre egin behar diegun erronka konplexu eta globalei heltzeko.

Lankidetza hori, Euskadin, Agendaren gobernantzari berari, haren proiektu eraldatzaileen diseinuari eta inplementazioari eta nazioarteko ekintzari aplikatzen zaie; horrela, 17. GJHaren irakaskuntzak ekimen zehatzetan hezurmamitzen dira.

NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA EKINTZA ERABAKIA

2030 Agendaren Euskadiko lokalizazioa nazioarteko ekintzaren pisua funtsezkoa duen jarduketa gisa ulertzen da, lankidetzaren aldeko apustu batetik abiatuta, ikasteko eta ekimenak beste lurralde batzuekin batera garatzeko.

Konpromiso hori berretsi egin du lehendakari berriak, Imanol Pradalesek, 2030 Agenda Euskadi Foroaren osoko bilkurak azaroaren 28an egindako bileran. Pradales lehendakariak honako alderdi hauek azpimarratu zituen:

- Erabateko konbentzimendua eta bat-etortzea Nazio Batuek mundu bidezkoago bat eraikitzeko ezarritako helburuan. Euskadin uste dugu estaturik gabeko nazioek eta toki-instituzioek funtsezko eginkizuna betetzen dugula mundu-mailako erronkei aurre egiteko, desafio globalek zuzeneko eragina baitute toki-esparruan.
- Bakea, giza eskubideak, elkartasuna eta berdintasuna funtsezko printzipioak dira Euskadirentzat. Horren adibide dira gure izaera komunitarioa eta auzolanaren kultura, gobernantza kolaboratiboaren oinarrian dagoena. Indarrak batuz, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Udalek, gizarte antolatuekin lankidetzan, proiektu emankorrak jarri ditugu abian. Baina ez da nahikoa. Jauzi kualitatiboa egiteko garaia da.
- Demokrazia biziberritzeko jauzia egin behar dugu, asalduzko garaiak bizi baititugu mundu osoko demokrazientzat. Horri beste joera arriskutsu bat gehitu behar zaio: komunitate gisa elkartzen gaituzten loturak ahultzen ari dira; indibidualismoa eta egoismoa aurrera egiten ari dira; eta eztabaida publikoak garrantzia galtzen du desinformazioaren eta albiste faltsuen (fake news) aurrean.
- Gure instituzioak gardentasunaren eta eredugarritasunaren bitartez indartu behar ditugu. Demokrazia gehiagorekin eta Europa gehiagorekin erantzun. Gizarte eta mundu gero eta konplexuagoen beharrei erantzuten asmatu behar dugu. Horregatik, funtsezkoa da gobernantza kolaboratiboan sakontzea, eta, ildo horretan, herritarrek politika publikoen diseinuan, abiaraztean eta ebaluazioan txertatzea. Logika alderdikoiak baztertu eta errespetuan oinarritutako elkarriketa zintzoa finkatu behar da, akordioak bilatzeko. Era berean, herritartasun kritiko eta konprometitua bultzatu behar dugu, askea eta arduratsua, autonomia eta komunitate-espirtua duena.

Bultzada eta gobernantza partekatua

Gobernantza-eredua eta lan-metodologia funtsezkoak dira garapen jasangarria betetzeko balantze ona eraiki ahal izateko. "Nola" egiten den, halakoa izango da "zer" hori lortzeko emaitza. **GJHek planteatzen dituzten erronken dimentsioak eta sakontasunak aliantza- eta elkarlan-estrategia eraginkorrak behar dituzte.**

2030 Agendaren gobernantzaren funtsezko tresna 2021ean sortutako 2030 Agenda Euskadi Foroa da (Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroa). Organo horrek 2030 Agendaren gobernantza partekatua bultzatzen du EAEko instituzio guztien eta gizarte-eragileen artean.

Langune egonkorren artean, Foroak osoko bilkura bat, batzorde iraunkor bat eta 5 lantalde ditu (Gobernantza, Euskadiko Bultzatu 2050 Hiri Agenda, Eraldaketa soziala, Eraldaketa energetiko-klimatikoa eta Eraldaketa ekonomiko-digitala), baita Guneak ekimena ere, akademiak, enpresek eta gizarte zibileko beste eragile batzuek parte hartzeko gunea.

Era berean, **lantalde tematikoak** antolatzen dira gai zehatzak modu kolaboratiboan garatzeko. 2024. urtean honako hauek izan ditu:

2030 Agendaren Adierazleen Euskal Sistemaren hobekuntzari aurre egiteko lantalde tematiko bat. Lantalde horrek berak, halaber, Borondatezko Tokiko Txostenak eta GJH-ikuspegia aintzat hartzen duten Aurrekontuak bezalako lokalizazio-tresna zehatzei buruzko irizpideak eta metodologiak homogeneizatzeko lanari ekin dio, baita udal-mailara hedatzeko lanari ere.

Euskadin hondamendien arriskua murrizteko eta prebenitzeko estrategiaren eta gobernantzaren arloan egungo egoera aztertzeke eta hobekuntza-esparruak identifikatzeko lantalde tematiko bat.

Foroa osatzen duten instituzio eta antolakundeek lankidetzari eta gobernantzari partekatuen esperientzia hori elikatzen jarraitu dute, beren parte-hartze aktiboaren eta ekarpen zehatzen bidez. **125 instituzio eta antolakunde ordezkatzeko dituzten 150 bat pertsonak parte hartu dute 2024. urtean** 2030 Agenda Euskadi Foroaren langune egonkorretan; **12 bileratan** parte hartu dute guztira (osoko bilkuraren 2 bilera, batzorde iraunkorraren bilera bat, lantaldeen 8 bilera eta Guneak ekimenaren bilera bat). Azpimarratu beharra dago 2024an Foroaren funtzionamendua Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeek (2024ko apirila) baldintzapean egon dela, eta horrek murriztu egin duela egin diren bileren kopurua.

Ondoren adierazten dira 2024an egindako jarduerak eta erdietsitako lorpenik nabarmenenak:

- Genero-berdintasunaren GJHaren tratamendu espezifikoak.
- Etorikizunaren Gailurrari eta 16. GJHari (Bakea, justizia eta instituzio sendoak) buruzko adierazpena.
- 2030 Agendaren esparruan demokrazia indartzeari buruzko adierazpena.
- 2024-2028 aldirako Gizarte Berrikuntzaren eta 2030 Agendaren Plana.

2021-2024 aldirako Lehentasunen Programa

“2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa” 2030 Agendaren arloko Eusko Jaurlaritzaren 2021-2024 aldirako jarduketa-plana da.

Programa horren misioa izan da 2030 Agendaren bidez kontratu sozialaren kultura sustatzea, 4 konpromisoren inguruan: barneko gizarte-kohesioari laguntzea, bakearen, justiziaren eta jasangarritasunaren aldeko nazioarteko ahaleginik onenen parte izatea, politiken koherentzia sustatzea eta 2030 Agenda lehentasun eraldatzaileak bultzatzeko konpromiso gisa hartzea.

Programak lanerako 4 lehentasun jasotzen zituen:

- Gizarte-dibulgazioa eta herritarren inplikazioa.
- Koordinazio eta gobernantza kolaboratiboa.
- Lerrokatzea, garapena eta ebaluazioa.
- Trakzio-konpromisoak eta proiektu enblematikoak.

7 proiektu enblematikoak aurreikusitakoaren arabera egikaritu dira, eta inpaktua sortu dute Euskadin ez ezik nazioartean ere, haietako batzuk Euskaditik bultzatzen den garapenerako lankidetzari loturik zeuden-eta.

Ardatzak	Trakzio-konpromisoak	Proiektu adierazgarriak
1. Pertsonak. Ekitatea	- Pobrezia eta gosea desagerraraztea, desberdintasunak murriztea eta bazterkeria prebenitzea.	I. Ekitatea proiektua
	- Hezkuntza inklusiboan sakontzea, gizarte kohesionatuagoa, solidarioagoa eta iraunkorragoa sustatzeko..	II. Hezkuntzaren auzolana proiektua. Guztiontzako hezkuuntza
2. Planeta. Ekologia	- Klima aldaketa indartzea: - Ekosistemak eta biodibertsitatea kontserbatzea, leheneratzea. - Eta deskarbonizazioa eta energia berriztagarriak.	III. Energia-Ekiola + Klima Ondarea proiektua
	- Ekosistema berde eta inklusiboko hiria, mugikortasuna eta hirigintza sustatzea..	IV. Opengela proiektua
3. Oparotasuna. Elkartasuna	- Osasun publikoa partekatzea, pertsona guztiengana iritsiko den ondasun partekatua, tokikoa eta globala den aldetik..	V. Osasun golabala proiektua
	- Ekonomian eta enpresan jasangarritasun- eta erantzukidetasun-oinarriak ezartzea eta garatzea.	VI. Basque Ecodesign Center proiektua
4. Bakea. Giza eskubideak	- Giza duintasunaren errespetuan oinarritutako mundu baketsu bati laguntzea, bidezko bizikidetzaren inklusio baterako	VII. Proyecto The Basque case: lessons learned for the prevention of violence and protection of peace (indarkeria prebenitzeko eta bakea bhabesteko euskal kasuaren ikaskuntzak)

Bultzatu 2050 Hiri Agenda

Euskadiko lurraldeak hazkunde ekonomikoaren, jasangarritasunaren eta gizarte-kohesioaren arloko aukerak eskaintzeko duen potentziala hobetzera zuzendutako politika publikoen sistematizazioa, orientazio estrategikoa eta koherentzia lortzeko ahaleginari erantzuten dio Euskadiko Bultzatu 2050 Hiri Agendak. Bultzatu 2050 agenda aurrez egindako plangintza-jardunetan eraiki eta proiektatzen da, eta horiek Euskadiko hiri-lurraldearen erronka eta potentzialtasunen ikuspuntutik bideratzen ditu, lurralde osoko hiri- eta toki-politiketarako erreferentzia-esparru bat eskaintzeko, Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalerrien mailetan.

Bultzatu 2050 agenda nazioarteko eta Europako testuinguruan kokatzen da, eta lurralde-garapen jasangarria eta ekonomikoki oparoa eraikitzeke abian jarritako lanetik egiten du ekarpena. Bultzatu 2050 agendaren helburua da inor eta leku bakar bat ere atzean utziko ez duten hiri eta herri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea, eta lorpen hori 2050. urtera arteko denbora-ikuspegiarekin begiesten du, jakitun izanik, artikulatzen dituen dimentsioen (sozioekonomikoa, energetikoa, klimatikoa, lurraldekoa) ezaugarria bera kontuan harturik, aurre egin beharreko erronkak irismen luze-koak direla, baina epe ertainean berrikustea ahalbidetzen duen dimentsio dinamikoa dutela. Bultzatu agenda NBE-Habitat programak ezarritako helburuekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) lerrokatuta dago, batez ere 11. helburuari dagokionez. Europarako kalitate handiko Baukultur bati buruzko Davoseko Adierazpenarekin bat eginez, **Bultzatu 2050 agendak hiri-eredu propioaren, jasangarriaren, bizikidetzakoaren eta kalitate handiko hirigintzan oinarritutakoaren aldeko apustua egiten du, eta hiri-garapen jasangarrirako politiken koherentzia-esparrua zehazten du.**

2024. urtean lantaldearen bilerak egin dira eta bigarren jarraipen-txostena aurkeztu da, 2030 Agendaren indarraldiaren erdigunean kokatzen dena. Txostenak sakonki ebaluatzen ditu Bultzatu 2050 agendaren 2 lehentasun estrategiko:

- Mugitzen ari diren hiriak eta mugikortasun berri baten aldeko apustua.
- Hiri berritzaileak eta jakintsuak, eta hiritarra eta gizatiarra elkartuko dituen berrikuntza ez-teknologikoaren eta I+G+Baren uztarketa beharrezkoa.

GJHak EAEko udalerrietan lokalizatzeko bultzada


2015ean Nazio Batuek 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak onartu izanak erreferentzia-esparru berria ekarri zuen EAEko udalerrietan garapen jasangarriaren printzipioak ezartzeko. Ordura arte, eta duela 20 urte baino gehiagotik, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateek Aalborgeko Gutunari eta Agenda 21eko prozesuei atxikitzea onartu zuten, udalerrri eta hiri jasangarriagoetarantz aurrera egiteko tresna gisa.

Bide horretan zehar, Udalsarea 2030 (Udalerrri Jasangarrien Euskal Sarea) eta EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarteak) lider gisa jarduten ari dira modu koordinatuan GJHak Euskadiko tokiko esparruan lokalizatzen.

Azken urteotan, eta Agenda 21etik 2030 Agendarako trantsizioaren testuinguruan, Udalsarea 2030 sareak hainbat tresna eta zerbitzu garatu ditu Garapen Jasangarrirako Helburuak EAEko udalerrien eta eskualde-entitateen ezaugarrietara eta errealtatara egokitzeko, tokiko mailan inplementatzea errazte aldera. Nabarmenezkoa da 2015ean "Tokiko 2030 Agenda. Nola heldu Garapen Jasangarriaren Helburuei tokiko eremutik" izeneko gida egin izana eta **Tokiko 2030 Agendako lantaldeak** sortzea eta dinamizatzea. Lantalde horien xedea da toki-entitateei 2030 Agenda ezartzeko aholku ematea eta laguntzea eta topagune bat sortzea, prozesu horretan parte hartzen duten eragileek 2030 Agenda toki-mailan egokitzeko lanetan izan dituzten esperientziak eta ikaskuntzak parteka ditzaten.

Gainera, Udalsarea 2030ek garapen **jasangarrirako tokiko planen eta politiken jarraipena eta ebaluazioa egiteko eredu** bat bultzatu du, kontuak ematera bideratua, entitateei urtero **borondatezko tokiko txostenak** sortzeko aukera ematen diena. Jarraipena eta ebaluazioa egiteko eredu hori gida metodologiko batean, online aplikazio batean (e-mugi) eta entitateei prozesu hori dinamizatzen laguntzeko zerbitzu batean oinarritzen da.

Jarraipen-eredu horri esker jakin daiteke zein diren Euskadin toki-mailan gehien jorratzen ari diren Garapen Jasangarrirako Helburuak. Gaur egun EAEko udalerrietan planifikatzen diren tokiko ekintzen proportzioa (garatutako ekintza guztien artean GJH bakoitza lortzen laguntzen duten ekintzen ehunekoa) honako hau da:



Bestalde, EUDEL - Euskadiko Udalen Elkarteak beste lokalizazio-esparru batzuk bultzatzen ari da, hala nola **udal-aurrekontua GJHekin lerrokatzea**, eta horretarako dauka "Udal Aurrekontua Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatzen hasteko gida praktikoa". Lerrokatze hori praktikan jarri nahi duten udalei lehen erantzuna emateko sortu da gida hori, batez ere aurrekontu-pedagogiaren ikuspegitik, eta lerrokatze horren emaitza herritarrei eman beharreko komunikaziora hurbiltzeko.

2021ean, EAEko udalerriek 2030 Agendan zuten parte-hartzearen esparruan, **udal-sustapeneko 15 proiektu kolaboratibo** hautatu ziren **2021-2024 aldirako**, eta Euskadi 2030 Agendako proiektu gisa integratu ziren. Proiektu horien garapenak aurrera jarraitu du 2024an.

Nabarmentzekoa da, halaber, EAEko udalerriek **Europako Kontseiluaren Gobernantzako Bikainta-sun Zigiluan (ELOGE)** duten parte-hartzea. Zigilu horrek tokiko gobernuen kalitate gorena egiaztatzen du, eta gobernu onaren eta udal-gobernu bateko berrikuntza demokratikoaren Europako errekonozimendurik handiena da. ELOGEren printzipioetan eta adierazleetan aurrera egiteak 16. eta 17. GJHeK proposatzen duten gobernantzaren kalitatea hobetzea dakar.

Azkenik, **“EAEko udalerrietan GJHen kokapena bizkortzeko esparru estrategikoa eta laguntza-tresnak”** dokumentua ere erabilgarri dago. Dokumentu horren bitartez esparru estrategiko bat proposatzen da eta lokalizazio horretan laguntzeko erabilgarri dauden tresnak biltzen dira.

EAEko udalerrietan GJHak lokalizatzearen inguruan adieraz dezakegun alderdirik azpimarragarriena da **ia udalerri guztiek partekatzen duten helburua dela, haien dimentsioa dena dela ere**. Adierazle garrantzitsuenen artean, honako hauek azpimarra ditzakegu:

- **225 udalerrik parte hartzen dute zuzenean edo eskualde-entitateen bitartez Udalsarea 2030en**, hau da, EAEko udalerrien % 90 eta EAEko biztanleen % 97 dira.
- **EAEko 72 toki-entitatek** (udalerriak eta eskualde-entitateak) **Tokiko 2030 Agendaren plana daukate edo prestatzen ari dira**.
- **EAEko 28 udalerrik** tokiko mailako garapen jasangarriaren erronka nagusiak aurreratzeko **borondatezko tokiko txostena daukate**.

Eraldatze-prozesuarekin eta giza garapen jasangarriarekin konprometitutako herri-tartasun aktiboa eta kontzientea sortzeko sentsibilizazioa

Ardatz horretan honako ekintza eta tresna hauek nabarmentzen dira:

2030 Agenda ulertzeko ikastaroak

2030 Agendaren hastapenei buruzko ikastaro irekiak eta doakoak, edozein antolakunde edo pertsona interesduni zuzenduak.

2024. urtean 500 pertsona baino gehiago prestatu dira.

2030 Agendari buruzko “gazte plaza” erakusketa ibiltaria

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) eta Eusko Jaurlaritzaren ekimen horren helburua da gazteen artean GJHei eta 2030 Agendari buruzko ezagutza areagotzea, erakusketa baten, GJHetan jorratzen diren zenbait gai lantzeko hitzaldien eta jarduera ludikoen bitartez.

Aurten Zarautzen, Trapagaranen, Amurrioren eta Galdakaon garatu da erakusketa.

Eskolako 2030 Agenda eta 2030 Agendari buruzko prestakuntza hezkuntza-esparruan

2030erako Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategiaren barruan kokatzen da Eskolako 2030 Agendaren garapena. Eskolako 2030 Agendaren asmoa da herritar ahalduak eta kontzientzia ekosoziala dutenak prestatzea, eta ikasleek horretan aktiboki parte hartzea gero eta udalerri jasangarriagoak lortzeko bidean ere.

DBHko hirugarren eta laugarren mailako ikasleei zuzendutako Agendari buruzko ikus-entzunezko material didaktiko berria sortzen lan egin da 2024. urtean.

GJH-en aldeko euskal aliantza

GJHen aldeko Euskal Aliantzak 5 konpromiso eta 5 inplikazio praktiko jasotzen ditu. Entitate bakoitzaren barruan “Enpresetan eta erakundeetan 2030 Agenda garatzeko gida” pixkanaka aplikatzea da horietako bat.

Aliantzak 103 entitate elkartu biltzen zituen 2024ko amaieran.

Elikaduraren alorreko jardunbide egokien gida

Elikaduraren alorreko hautuen bitartez GJHak lortzen laguntzeko interesa duten herritarrei zuzendutako gida, Basque Culinary Centerrek egina.

Beste sozializazio-ekimen batzuk

Beste sozializazio-ekimen batzuk, hala nola BBK ODS Eguna.

Lurraldeko eragileen artean berrikuntza eta gaitasunak sortzea, haien antolakundetan jasangarritasuna integra dezaten eta eragile anitzeko lankidetzarako presta daitezen

Honako ekimen hauek nabarmentzen dira:

2030 Agendaren eta GJH-en integrazio estrategikoaren, jarraipenaren eta komunikazioaren graduondokoa

EAEko unibertsitate-sistemako 3 unibertsitateen (UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) arteko lankidetzaren emaitza den titulua.

Enpresetan eta erakundeetan 2030 Agenda garatzeko gida

Enpresei eta antolakundeei 2030 Agendarekiko konpromisoa garatzen eta GJHein aurrera egiteko bidean posizionatzen laguntzeko tresna, egoeraren diagnostiko bat egin eta GJHein eskatzen dizkiguten eraldaketetan modu partekatuan, malgutasunez eta progresiboki aurrera egiteko ibilbidea definitu ondoren.

BBK kuna, GJH-en etxea

Gizarte-berrikuntzarako gune horretan GJHein lotutako hainbat eragilek parte hartzen dute, Bizkaiko gizarteari etorkizuneko erronkei erantzungo dieten soluzioak eskaintzeko.

2030 Agendaren hiztegi eleaniztuna

Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko 3.600 sarrera dituen hiztegia. Informazioa www.2030agendahiztegia.eus webgunean eskura daiteke.

Inbertsio publikoa eta pribatua lurraldea eraldatzeko ibilbide-orrietarantz erakartzea

Esparru horretako jarduketa azpimarragarrien artean honako hauek adieraz daitezke:

“Euskadi Bonu Jasangarriak” ekimena

2024an bonu horien zortzigarren jaulkipena abiarazi eta itxi da, 600 milioi euroko balioarekin, eta eskaria eskaintza baino ia 7 aldiz handiagoa izan da (4.013 milioi euroko balioa biltzen zuten eskabiak jaso dira). Bonuen % 70 nazioarteko kontuetan kokatu dira, % 24 estatuko inbertsiogileetan eta % 6 Euskadiko inbertsiogileetan.

Inbertsio hori gizarte-proiektuak eta proiektu berdeak finantzatzeari esleitzen zaio.

Euskadi Next

2021-2026 aldirako Euskadi Next programa eraldaketa ekonomikoaren aldeko apustua da, baita Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak (SEM) datozen Europako funtsen erabileran Euskadik dituen sendotasunak indartzearen aldekoa ere. Honako hauek dira esku hartzeko ardatzak:

- Osasuna eta pertsonen zaintza.
- Bizialdi osoko ikaskuntza.
- Energia berriztagarrien sorkuntza.
- Mugikortasun jasangarria.
- Administrazioen eta enpresen digitalizazioa eta berrikuntza.
- Hiri-habitata.
- Habitat naturala eta hondamendi naturalen prebentzioa.
- Ekonomia zirkularra.

Euskadi Next programak 18.000 milioi eurotik gorako inbertsio-inpaktua ekar lezaketen proiektu zehatzak biltzen ditu, Europako funtsak eta proiektuekin lotutako bestelako finantzaketa publikoa eta pribatua barnean hartzen dituztenak.

Euskadi Next programaren barruan 2022-2024 aldirako Euskadiko Inbertsio Estrategikoen Plana garatzen da, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien instituzio arteko plana, 528 milioi euroz hornitua, Euskadiren garapen jasangarriari lotutako proiektu eraldatzaile handiak bultzatzea helburu duena.

Adierazle-sistema

Euskadik adierazle-sistema bat du, Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Jomugen betetze-maila etengabe monitorizatzea ahalbidetzeko.

Adierazle-sistema horrek EUSTAT - Euskal Estatistika Erakundeak garatutako estatistika-eragiketa bat izan du abiapuntu. Eragiketa horrek adierazle kopuru handia ekarri du, eta horien metodologia Estatuko autonomia-erkidegoetako estatistika-organo zentral guztiekin harmonizatu da. Hor-tik abiatuta, 2030 Agenda Euskadi Foroaren esparruan, adierazle-sistema hori areagotzeko lan kolaboratiboa egiten da, batez ere gaur egun informazio gutxien duten Helburu eta Jomugekin erlazionatutako adierazleak identifikatzea ardatz hartuta. Ahalegin handia egiten ari da, halaber, udalerrien eta/edo lurralde historikoen mailan bereizitako datuak eskainiko dituzten adierazleen kopurua handitzeko.

Sistemak x adierazle zituen 2024ko amaieran, honela banatuta:

GJHaK	Adierazle kopurua guztira	Lurralde historikoen mailan bereizitako adierazleen kopurua	Udal-mailan bereizitako adierazleen kopurua
1. GJHa - Pobrezia desagerraraztea	31	1	19
2. GJHa - Goserik ez	15	2	4
3. GJHa - Osasuna eta ongizatea	38	17	0
4. GJHa - Kalitatezko hezkuntza	39	9	7
5. GJHa - Genero-berdintasuna	26	16	4
6. GJHa - Ur garbia eta saneamendua	8	1	2
7. GJHa - Energia irisgarria eta ez kutsagarria	12	0	6
8. GJHa - Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	38	9	9
9. GJHa - Industria, berrikuntza eta azpiegitura	20	10	3
10. GJHa - Desberdintasunak murriztea	12	3	3
11. GJHa - Hiri eta komunitate jasangarriak	22	7	6
12. GJHa - Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak	12	8	0
13. GJHa - Klimaren aldeko ekintza	5	0	1
14. GJHa - Itsaspeko bizitza	1	0	0
15. GJHa - Lehorreko ekosistemetako bizitza	7	0	3
16. GJHa - Bakea, justizia eta instituzio sendoak	40	28	1
17. GJHa - Helburuak lortzeko aliantza	26	9	1
GUZTIRA	352	120	69

GJH-ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontugintza eta kontratazio publikoak

GJH-IKUSPEGIA AINTZAT HARTZEN DUEN AURREKONTUGINTZA PUBLIKOA

EAEko zenbait instituzio publiko GJH-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko ekimenak garatzen ari dira (Eusko Jaurlaritza 2024ko aurrekontuetan egiten hasi zen), eta beste batzuek lan-ildo horri aurki heldzea aurreikusten dute.

Instituzio guztien aurrekontu-lerrokatzea homogeneizatzea ahalbidetuko duen metodologia bat garatzen lan egitea aurreikusten dute.

GJH-IKUSPEGIA AINTZAT HARTZEN DUEN KONTRATAZIO PUBLIKOA

GJH-ikuspegia aintzat hartzen duen kontratazio publikoari buruzko txosten bat egin da, Euskadiko egungo egoeraren azterketa eta estatuko eta nazioarteko erreferentziazko jardunbide egokiak barne hartzen dituena.

EAEko administrazio publikoen kontratazio-prozesuetan gizarte- eta ingurumen-klausulak erabiltzea bultzatzeko garatu beharreko proiektu baten oinarria izango da txosten hori.

Nazioarteko esparruko ekintzetan aktiboki parte hartzea eta beste lurralde batzuekin lankidetzan jardutea

2024. urtean honako ekimen hauek nabarmentzen dira:

Etorkizunaren gailurrean parte hartzea

Nazio Batuen 2030 Koalizioak **“Guztionezko etorkizun ekitatibo, jasangarri eta seguruago baterako tokiko bideak konfiguratzeko. Etorkizunerako Ituna lokalizatzen”** izenburupean antolatutako ekitaldi paraleloan parte hartu zuen Euskadik irailaren 21ean New Yorken.

Euskadi **Etorkizunerako Ituna lokalizatzearen** alde agertu zen, eta gobernantza-sistema multilateralak bermatzearen garrantzia azpimarratu zuen, non gobernu-maila guztiek elkarrekin eta aniztasunetik lan egingo baitugu, eragile anitzeko gobernantza izanik Euskadiren kasuan.

Euskadi, local 2030 koalizioaren egoitza

Local 2030 Koalizioak Euskadirekiko lankidetzak finkatu du, **2024. urtean Bilboko bulegoa abian jarri du-eta**.

Urrats horri esker, bere inpaktua areagotuko du eta aurrera egingo du hurrengo faserantz: eraldaketa sistemikoak lortzeko konexioak sustatzea eta GJHen lokalizazioaren arrakasta elkarrekin definitzea. Eginkizun horretan sartzen da Garapenerako Finantzaletaren Konferentzia eta COP30 bezalako funtsezko agenda globaletan GJHak txertatzea. Etorkizunari begira, ikusmoldeak lokalizazioa finantzatzea eta eraginkortasunez monitorizatzea hartzen du ardatz, lokalizazio-markatzailea eta ekintzara bideratutako borondatezko tokiko berrikuspenak bezalako tresnak erabiliz.

Halaber, lankidetzak deszentralizatua lehenetsiko da, Euskadiko eredu nazioartean jardunbide egokiak hedatzeko eredu gisa hartuta, eta lankidetzak eta aliantza sendoekiko konpromisoa berretsiko da, garapen jasangarri inklusiboagoa eta eraldatzaileagoa bultzatzeko funtsezko bitartekoak direla ulertuta.

Gainera, otsailean Bilbon egin zen Koalizioaren Erretiroa, NBEko 15 agentzietako zuzendarien presentziarekin, hurrengo 3 urteetarako kudeaketa-planaren zirriborroa elkarrekin egiteko.

Nazio Batuen Local2030 hub-sarearen parte izateko proposamenaren aurkezpena

Azaroan Kairon egindako Munduko Hiri Foroaren (WUF) esparruan egin da aurkezpen hori.

Hub horrek mundu osoko beste hiri eta eskualde batzuen onerako baliabideak, ezagutzak, estrategiak eta soluzio berritzaileak emango ditu, eta sistema demokratikoa indartzea hartuko du ardatz, honako hauek azpimarratuz:

- Gobernantza kolaboratiboa, lurralde-lehiakortasunaren faktore gisa ulertuta.
- Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna.
- Lankidetzak publiko-pribatuaren bidezko lokalizazioaren finantzaketa.

ELGA-K EGINDAKO KASU-AZTERKETAREN AMAIERA

ELGAko ETEen, Eskualdeen eta Hirien Ekintzailentzarako Zentroak egindako “EAEko Garapen Jasangarriaren Jomugetarako Lurralde Hurbilketa” kasu-azterketa amaitu da.

18. GJHa (Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna) txertatzea

2023ko amaieran “**18. helburua Euskadi Basque Country 2030 Agendan txertatzea. 18. helbururako (Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna) jomugen zabalkundea**” dokumentua onartu zen. Horren ondorioz, 2024. urtean EAEko instituzio ugari hasi dira beren plangintzan eta zabalkunde-jardueretan helburu hori sartzen.

2025ean sektorearekin egingo den parte hartzeko prozesu baten bidez osatuko da dokumentu hori, eta nazioarteko ibilbide-orri bat egingo da, helburu hori 2030 Agenda globalean integratu ahal izateko.



Bigarren zatia

Euskadik 2024an 2030 Agenda globalari egindako ekarpena: GJH bakoitzaren araberako ikuspegi xehatu




Hurrengo orrialdeetan, euskal instituzioek 2024. urtean GJHei zuzenean laguntzeko bultzatu dituzten ekintzak azalduko ditugu.

Ekintza horiek ia ezin konta ahalakoak direla kontuan harturik, instituzio-maila bakoitzetik (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak), hainbat kasutan gizarte- eta enpresa-eragileekin lankidetzan jardunez, egunero egiten den ekarpena adierazten duten zenbait ekintza eraldatzaile hautatu dira GJH bakoitzerako. Ekintza horiek 3 kategoriatan sailkatu dira:

- Legegintzako ekimenak.
- Plangintza-tresnak, hala nola estrategiak eta planak.
- Zerbitzuak, programak eta proiektuak.

Euskadin GJH bakoitzean erdietsitako inpaktua (izandako aurrerapena) erakusten duten zenbait adierazle —egiturazkoak batez ere— ere hautatu dira.





GJH 1

Pobrezia mota guztiak desagertzea

GJH 1 - Edukiaren laburpena

Legegintzako ekimenak

- 14/2022 Legea, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema-rena.
- 147/2023 Dekretua, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoa.

Plangintza-tresnak

- Gizarteratzeko V. Euskal Plana (2022-2026).
- EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa (2023-2026).
- Bizitegi-bazterketa larriaren aurkako Euskal Estrategia.
- Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala (2022-2026).
- Boluntariotzaren Euskal Estrategia (2021-2024).
- Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plana.
- Euskadiko Haur Bermearen 2030erako Estrategia.

EKINTZEN AURRERAPENA

GJH 1: Pobrezia mota guztiak desagertzea


ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren programa** (Eusko Jaurlaritza). Oinarrizko beharrek lotutako gastuei aurre egiteko nahikoa baliabide ez duten bizikidetza-unitateetan integratutako pertsona eta familien oinarrizko beharrei erantzuteko hileko prestazio ekonomikoa.
- **Gizarte-larrialdietarako laguntzak** (Eusko Jaurlaritza eta udalak). Gizarte-bazterketa prebenitu, saihestu edo arintzeko behar diren gastu espezifikoak, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko nahikoa baliabide ez duen bizikidetza-unitate batean integratutako pertsonen zuzendutako prestazio ekonomiko ez-aldezkatuak.
- **Energia- eta elikadura-pobreziari aurre egiteko ekimena** (Eusko Jaurlaritza). Oinarrizko higie-ne-produktuak eta elikagaiak erosteko baliabiderik ez daukaten pertsonen eta familien oinarrizko beharrak premiaz estaltzea eta, halaber, sistematik kanpo geratzen diren familiei argindarraren, uraren eta gasaren fakturak ordaintzen laguntzea.
- **Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria eta etxebizitza izateko eskubide subjektiboa** (Eusko Jaurlaritza). Etxebizitza eskuratzeko edo etxebizitza duina eta egokia eskuratu jartzeko laguntza ekonomikoak, nahikoa baliabide ez duten bizikidetza-unitateen zuzendutakoak.
- **“Gizarte Bonu Termikoa” programa** (Eusko Jaurlaritza). Kontsumitzaile zaurgarrienei berokuntza, ur beroa edo sukaldea erabiltzearen ondorioz eragindako gastu termikoak konpentsatzeko laguntza-programa.
- **Energia-pobreziaren aurkako laguntza bereziak** (Bilboko Udala). Etxeko beharrak asetzeko behar adinako energia-zerbitzuen gastuak ordaindu ezin dituzten edo energiaren faktura ordaintzera diru-sarreraren zati proportzional gehiegizkoa bideratu behar duten familia-unitateen zuzendutako laguntza ekonomikoak.
- **Haur Pobreziaren aurkako Borrokarako goi-komisarioaren Haur Pobrezia Zero Herrialde Aliantzarekiko** atxikimendua (Gasteizko Udala). Aliantzaren helburua da haur-pobreziaren joera aldaraztea, eta, horretarako, arazo hori desagerrarazteko funtsezko eragileak artean akordioak sortzea.

- **Migraziorako Euskal Itun Soziala** (instituzio artekoa). Immigrazioaren arloan jarrera etikoak defendatzeko bizikidetzaren aldeko konpromiso erkidea.
- **Bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden pertsonen zenbaketa eta diagnostikoa** (Eusko Jaurlaritza eta udalak). Bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden pertsonen kopurua gau jakin bat erreferentziatzat hartuta kuantifikatzea xede duen ekimena. Horrez gain, pertsona horien egoera eta ezaugarriak ezagutu eta analizatu nahi ditu.
- **Elkar-EKIN, Gizarteratzeko Plana** (Gipuzkoako Foru Aldundia). Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko eta ekonomian txertatzeko aukera berriak sortzea bultzatzen duen, lurralde-politiken zeharkakotasuna indartzen duen eta herritarrak inplikatu eta gizarteratzeari buruzko komunikazio- eta sentsibilizazio-estrategia garatzen duen Gizarteratzeko Plan berria.

ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

Adierazlea	Oinarrizko datua	Azken datua	Joera
Pobreziako edo gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonen proportzioa: AROPE adierazlea, pobreziaren atalase autonomikoa kontuan hartuta (%)	22,68	19,47	↑
Administrazio publikoen gastutik gizarte-babesera bideratzen den proportzioa (%)	45,50	46,42	↑





GJH 2

Gosea amaitzea

GJH 2 - Edukiaren laburpena

Plangintza-tresnak

- Agritech estrategia.
- EAEko Ekoizpen Ekologikoa Sustatzeko Plana (FOPE) (2020-2023).
- Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa (2021-2024).

EKINTZEN AURRERAPENA

GJH 2: Gosea amaitzea


ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Jantoki sozialak** (Bilboko Udala). Elikadura baliabiderik gabeko pertsonen oinarritzako beharrietako bat da eta Bilboko Udalak "Ettxerik gabeko pertsonentzako esku-hartze sozialeko Oinarritzako Programaren" bidez erantzuten dio, 3 jantoki sozialen bitartez.
- **Lagun guneak** (Bilboko Udala). Programa horrek familientzako elikagai-banaketak duintzen ditu, eta pertsona horiei arreta integrala emateko zerbitzua eskaintzen du, erantzun pertsonalizatuak eta adituen laguntza biltzen dituenak.
- **GaztenekBerri programa** (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak). Lehen sektoreko belaunaldien arteko erreleboaren inguruko programa, ustategien jasangarritasuna nabarmentzen duena.
- **Labore ekologikoen finka esperimentala Eskalmendin** (Arabako Foru Aldundia).
- **Basaldea zentroa, nekazaritza birsortzailearen inguruko prestakuntza eta ekintzailatza** (Gasteizko Udala).
- **BIHAR programa** (Arabako Foru Aldundia). Gazteak protagonista izango dituen sare bat bultzatu eta sortzea ardatz duen jarduketako programa, gazteei lehen sektorearen barruan dauden potentziala eta aukerak ikusten lagundu diezaien, gizartearen pertzepzioa eraldatu eta nekazaritzarako eta abeltzaintzarako etorkizun bikainagoa ziurtatze aldera.
- **Suspertze Plana** (Bizkaiko Foru Aldundia). Lehen sektoreari laguntzeko programa integrala. Belaunaldien arteko trantsizioa erraztuko duen ustategien banku bat sortzea, ekintzailatza sustatuko duen errelebo-plan integral bat, ur-tarifetan hobariak aplikatzea eta forfait fiskala hartzen ditu barnean.
- **Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategia** (Gasteizko Udala). Estrategiaren helburua da produktu fresko eta tokikoen produkzioa, merkaturatzea eta salmenta areagotuko dituen sistema baten garapena diseinatzea eta testatzea, nekazaritza birsortzailean oinarritutako laborantzaren bitartez.

- **Nekazaritza-lurzorua osasunaren adierazleak zaindu eta iragarriko dituen azpiegitura digitala sortzeko AI4SoilHealth Europako proiektuan parte hartzea** (Eusko Jaurlaritza).
- **Nekazaritza Politika Erkidearen barruko esku-hartzeen programa, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEUF) kargura finantzatutako zuzeneko ordainketena** (Eusko Jaurlaritza).
- Oinarrizko laguntza materialeko programa (Eusko Jaurlaritza): batez ere adingabeak dituzten familien gizarte-zaugarritasuna zenbait supermerkatutan trukatu beharreko txartel digitalen bitartez arintzea helburu duen Europako programa.

ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

Adierazlea	Oinarrizko datua	Último dato	Tendencia
Nekazaritza emankor eta jasangarria lantzen duten laborantza-lurren azaleraren proportzioa (%)	1,09	4,82	↑
Elikagaien prezioen indizearen urte arteko aldakuntza-tasa (%)	1,40	11,10	↓





GJH 3

Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea

GJH 3 - Edukiaren laburpena

Legegintzako ekimenak

·13/2023 Legea, Euskadiko Osasun Publikoarena.

Plangintza-tresnak

- Osasunaren aldeko Euskal Ituna.
- Euskadiko Osasun Plana (2030).
- Euskadiko Arreta Soziosanitariorako Estrategia (2021-2024).
- GIBaren infekzioa eta sexu-transmisiozko beste infekzio batzuk prebenitzeko eta kontrolatzeko Plan Estrategikoa (2022-2030).
- Euskadiko Osasun Mentaleko Estrategia (2023-2028).
- Euskadiko Adikzioen VIII. Plana (2023-2027).
- EAEn jarduera fisikoa preskribatzeko plana.
- Euskadiko Zainketa Aringarrien Plan Estrategikoa (2023-2027).

EKINTZEN AURRERAPENA

GJH 3: Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea


ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Osasun-instalazioak eta - ekipamenduak modernizatzea eta egokitzea** (Eusko Jaurларitza).
- **Hortzak zaintzeko laguntza publikoa 0 eta 6 urte bitarteko biztanleei hedatzea** (Eusko Jaurларitza).
- **“Healthier together” osasun mentala hobetzeko Europako ekimenean parte hartzea** (Eusko Jaurларitza).
- **Osakidetzako Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea, hemofiliaren tratamendurako Europako Erreferentziazko Zentro Ofiziala** (Eusko Jaurларitza).
- **Lehen mailako arretako plantilla indartzea** (Eusko Jaurларitza).
- **Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua** (instituzio artekoa). Kontseiluak instituzioen arteko koordinazio soziosanitario efektiboa sustatzeko eta ahalbidetzeko esparruetan lan egiten du, lehen mailako eta bigarren mailako arretan, diziplinar-teko lan-esparru partekatua sustatzeko eta pertsonen behar soziosanitarioei erantzuteko.
- **Udaletako osasun-planak** (udalak).
- **Zainketen aldeko Itun Soziala** (Eusko Jaurларitza, foru-aldundiak, EAEko hiriburuak).
- **Adinberri** (Gipuzkoako Foru Aldundia). Aurrea hartzeko gobernanta-estrategia, biztanleriaren zahartzearekin lotutako erronkak identifikatzen eta aukeratzat hartuta erantzuten lan egiten duena.
- **EtxeTIC proiektua, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak etxean bizitzen jarraitzeko laguntza-zerbitzua** (Bizkaiko Foru Aldundia). Etxean ematen diren zainketei laguntzeko doako zerbitzua. Aurrez aurreko laguntza eskaintzen du (EtxeTIC eskualde-zentroetan bertan), baita telematikoa ere (etxetik, gailu teknologikoen bidez).
- **Etxean Bai programa, mendekotasuna duten pertsonak teknologia berrien laguntzarekin etxean zaintzeko** (Arabako Foru Aldundia). Funtsezko helburu hauek ditu: Arabako biztanleriaren zahartzea aztertzea eta ulertzea; zahartze bete-betekoa, aktiboa eta osasungarria eta autonomia pertsonala ezin hobeto garatzea; eta zahartzaroarekin lotutako problematikei heltzea.
- **Euskadi Lagunkoia, adinekoekin lagunkoia diren udalerriak** (Eusko Jaurларitza eta udalak). Ekimenaren helburua da adinekoek Euskadiko udalerrietan parte har dezaten sustatzea eta adinekoekin lagunkoia diren hiri eta herriak osatzea.

- **Agenda Nagusi** (Eusko Jaurlaritza). Adinekoentzako gobernantzaren euskal estrategia, gobernantza kolaboratiboko eredu baten diseinuan oinarritua.
- **Zaindoo** (Eusko Jaurlaritza). Familia zaintzaileei laguntzeko aplikazio mugikorra.
- **Begirada Aktibo Berria** (Bilboko Udala). Bakarrik bizi diren eta familia- edo gizarte-laguntza jasotzeko sarerik ez duten adinekoak identifikatzeko programa, udaletako gizarte-zerbitzuek behar diren prebentzio-lanak egin ditzaten.
- **Piztu zure auzoa** (Gasteizko Udala). Zaurgarritasun- eta/edo hauskortasun-egoerak bizi dituzten adinekoak harremanetan jartzen dituen eta herritarrek bakardadeari aurre egiteko helburuarekin inplikatzeko dituen programa.
- **Egoitza-eredu berria** (Bizkaiko Foru Aldundia). Mendekotasuna duten foru-egoitzen erabiltzaileentzako arreta hobetzea, bizikidetza-unitateetan oinarritutako eredu baten inplementazio progresiboaren bitartez.
- **Zaintza HerriLabeskalatze-huba** (Gipuzkoako Foru Aldundia). Hub horrek lurralde osora eskalatu nahi ditu zainketen tokiko ekosistemak bultzatzen dituzten berrikuntzak, ikaskuntza-sarearen bidez eta garatzen ari diren eta inpaktu frogatua duten esperientzia pilotuen transferentziaren bitartez.
- **Haria** (Gipuzkoako Foru Aldundia). Nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko eta zenbait bakardade-egoeratan esku hartzeko proiektuak edo prebentzioa bultzatzeko, pertsonen arteko harremanak eta gizarte-loturak (batez ere belaunaldien artekoak) indartzeko eta bakardadeekin lotutako estigma soziala gaindituko duen elkarriketa publikoa sustatzeko estrategia.
- **Araba a Puntu** (Arabako Foru Aldundia). Adineko askok pairatzen duten nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko eraikuntza kolektiboko estrategia bat bultzatzeko ekimena.
- **Desgaitasun intelektuala duten pertsonen Zahartzearen inguruko Ikerketa Zentroa** (Arabako Foru Aldundia). Ikerketa- eta berrikuntza-zentroa, Araban zahartzen ari diren eta desgaitasun intelektuala eta neurogarapenaren nahasmenduak (NGN) dituzten pertsonen bizikaltatea eta autonomia hobetzeko, lankidetzak eta ezagutza-trukea sustatuko dituen ekosistema inklusibo baten eraikuntzaren bidez.
- **Mugiment** (Eusko Jaurlaritza eta udalak). Euskal gizarte aktiboa lortzeko proiektu kolaboratiboa. Jarduera fisikoa sustatzera eta sedentarismoa murriztera bideratutako ekimenak batzen ditu, pertsona ez-aktiboak aktibo bihurtzeko neurriei lehentasuna emanez.
- **Zeu Ere Kirolari** (Bizkaiko Foru Aldundia). Proiektuaren asmoa da Bizkaiko biztanleen artean kirola egiteko aukerak areagotzea 3 esparrutan: naturaguneak erabiltzea kirola egiteko; emakumea eta kirola; eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen kirola egiteko aukerak areagotzea.
- **“Kirol-hitzorduek”** (Gasteizko Udala). Zenbait kirol-modalitate, herritarrei irekitako eta monitore espezifikoei zuzendutako jardueren bitartez, espazio publikoko hainbat puntutan taldean egitea ahalbidetzen duen programa.

ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

Adierazlea	Oinarrizko datua	Azken datua	Joera
Bizi-itxaropena jaiotzean (urteak)	82,97	83,36	
Obesitate-tasa helduen artean (%)	13,00	14,00	





GJH 4

**Guztiontzako kalitatezko
hezkuntza inklusiboa nahiz
bidezkoa bermatzea eta
etengabeko ikaskuntzarako
aukerak bultzatzea**

GJH 4 - Edukiaren laburpena

Legegintzako ekimenak

- 17/2023 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena.
- 4/2018 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzkoa.

Plangintza-tresnak

- Lanbide Heziketako VI. Euskal Plana (2022-2024).
- Unibertsitate Sistemaren Plana (2023-2026).
- Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Plana (2022-2024).
- STEAM Euskadi estrategia.
- Astialdi Hezigarria Sustatzeko 2030 Euskal Estrategia.

EKINTZEN AURRERAPENA

GJH 4: Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea


ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **“Hezkuntzaren auzolana. Guztiontzako hezkuntza” proiektua** (Eusko Jaurларitza). Hezkuntza-etapa guztietan ekimenak dituen eta kolektibo zaurgarrienei arreta berezia ematen dien zeharkako proiektu gisa konfiguratzen da.
- **Desabantaila sozialeko egoeran dauden haurren, nerabeen eta horien familien gaitasunak indartzeko eta arrakala digitala murrizteko Aukerak Suspertzen programa** (Eusko Jaurларitza).
- **Unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenen programa** (Eusko Jaurларitza).
- **Unibertsitateko ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko beken programa** (Eusko Jaurларitza).
- **Ikaslab, ikasteko metodologiak berritzeko proiektua** (Eusko Jaurларitza).
- **Euskadiko Lanbide Heziketan espazio, ekipamendu eta azpiegituren eraldaketa digitala eta jasangarria gauzatzeko “Ikastetxe Adimendunak 5.0”** (Eusko Jaurларitza).
- **Lanbide Heziketako Talentuaren Euskal Institutua (iTlent)** (Eusko Jaurларitza). Ikaskuntza-eredu metodologiko aurreratuen ikerketa aplikatua, garapena, inplementazioa eta transferentzia bultzatzeko eginkizuna duen organismo teknikoa, lanbide-heziketako ikasleek talentua gara dezaten; izan ere, talentu hori eskatutako enplegarritasun-betekizunetara egokitzen laguntzen duten konpetentzia profesional eta pertsonaletan adierazten da.

- **Gizartearekin lankidetzaharremanak estutzeko eta ezagutza transferitzeko “Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea” ikasgelak** (Eusko Jaurlaritza).
- **Enpresek 4.0 Industriaren esparruan eskatzen duten etengabeko prestakuntzari Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek erantzun koordinatua eskaintzeko 4GUNE egikaritze-programa** (unibertsitateak).
- **Bilbo, unibertsitatearen eta ezagutzaren hiria** (Bilboko Udala). Bilbo nazioarteko talentu gaztearentzako ezagutza-hub baten modura posizionatzeko hiri-estrategia. Bertan, unibertsitateek, ikastetxeek eta ikerketa-zentroek ekosistema irekia eta dinamikoa sortuko dute, enpresa-ehunarekin eta ekintzaitzarekin harreman estuan.
- **Talentuaren aldeko konpromisoa** (Bizkaiko Foru Aldundia). Bizkaian talentua erakartzea, mantentzea eta atxikitzea helburu duen proiektua.
- **“Lagunkotasun digitalaren” programa** (Bizkaiko Foru Adundia). Programa horren bidez prestakuntza eta trebakuntza digitaleko jarduerak hedatzen dira adineko pertsonen eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen artean.
- **Udalaren Haur Eskolen programa** (Gasteizko Udala). Jaiotza-tasa sustatzeko eta bizitza pertsonala, familiakoa, soziala eta lanekoa kontziliatzen laguntzeko tresna, kalitatezko doako zerbitzu publikoa eskaintzen duena.

ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

Adierazlea	Oinarrizko datua	Azken datua	Joera
Hirugarren mailako ikasketak amaitu dituzten 30-34 urteko pertsonen proportzioa (%)	50,34	48,78	↓
18-24 urte bitarteko biztanleen eskola-uzte goiztiarraren tasa (%)	10,2	8,8	↑
Irakurtzeko/matematikako gaitasunaren 2. maila gutxienez lortu duten 15 urteko pertsonen proportzioa	82,6 80,5	74,17 77,33	↓





GJH 5

Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahalduntzea

GJH 5 - Edukiaren laburpena

Legegintzako ekimenak

- 1/2022 Legegintzako Dekretua, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 48/2024 Dekretua, Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako dirulaguntza arautzen duena.

Plangintza-tresnak

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana (2022-2024).
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko III. Akordioa.
- Soldata Arrakala murrizteko 2030 Estrategia eta 2022-2025 aldirako Ekintza Plana.

EKINTZEN AURRERAPENA

GJH 5: Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahalduntzea


ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **BAI Sarea - Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko erakunde laguntzaileen sarea** (Eusko Jurlaritzak). Sare horren asmoa da enpresa- eta gizarte-errealitatea eraldatzeko neurri eta tresnen garapenean eta ekimen partekatuetan laguntzea eta arlo horretan partekatzea, lan-esparruko genero-arrakalak murrizteko eta berdintasuna eta justizia soziala antolakundeen balio estrategikoak izan daitezen bultzatzeko.
- **Berdintasunaren aldeko Tokiko Gizonezko Hautetsien Sarea** (Berdinsarea). Sare horren asmoa da tokiko politikariek beren udalerrietan berdintasunak aurrera egitearekin duten inplikazioan modu esanguratsuan sakontzea.
- **Ikuspegi feminista duen zainketa erantzunkideen tokiko eredua** (Berdinsarea). Proiektu horrek identifikatu, definitu eta modelatu nahi du nola eraiki daitekeen zainketa tokiko sare bat bizitzaren zentralitatearen paradigmatik, zerbitzu publikoetatik eta sare komunitarioetatik, zainketa-sisteman inplikaturik dauden eragileekin behar diren aliantzak sortuta.
- **Basqueskola sarea indartzea emakumeek tokiko politikan parte hartu eta eragina izan dezaten** (Berdinsarea).
- **Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako arreta hobetzeko erakunde arteko akordioa** (instituzio artekoa). Akordio horren xedea da tratatu txarren eta sexu-erasoen biktimentzako arretan inplikaturik dauden instituzioak koordinatzea, babes integral sanitarioa, polizia, judiziala eta soziala bermatzeko.
- **Indarkeria matxistaren biktimen arreta integralerako eta erreparazioerako tokiko koordinazio-protokoloak eguneratzea** (Berdinsarea).
- **Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko "Beldur Barik" erakunde arteko kanpaina** (instituzio artekoa).

- **Libre izan Nonahi kanpaina** (Gasteizko Udala). Indarkeria matxista prebenitzeko kanpaina, 12 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendua. Modu dinamikoan eragin nahi du indarkeria matxista sostengatzen duten balio eta sinesmenen sisteman. Kanpaina hainbat ekintzaren bitartez gauzatzen da: udako kanpaina bat igerilekuetan eta auzoetako jaietan, dispositibo bat Gasteizko jaietan, lantegiak urte osoan eta topaketa bat udazkenean.
- **Eraso Stop app-a** (Bilboko Udala). Erasok prebenitzea xede duen doako aplikazioa, Udaltzaingoaren koordinazio-zentrora berehala abisatzeko aukera ematen baitu, dei bat egin beharrik gabe.
- **Ahalduntzeko eskolak** (aldundiak eta udalak). Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa ahalduntze-prozesuen bitartez sustatzea helburu duten espazioak.
- **Sexu-indarkeria pairatzen duten emakumeei arreta integrala emateko foru-zentroak hiru lurralde historikoetan.**
- **Emakumeen etxeak** (udalak). Ahalduntze feministaren inguruan prestatzeko, gogoeta egiteko, trukatzeko eta parte hartzeko jarduketak ikusarazteko erreferentziazko espazioak dira.
- **HARA! Berdintasun-politiketan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko agenda** (Gasteizko Udala).
- **STEM Bizkaia** (Bizkaiko Foru Aldundia). Neskak eta gazteak sentibilizatzeko eta ahalduntzeko programa, baita emakumeak industria-esparruan eta STEMen sartzea errazten duten programa berritzaileak ere.

ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

Adierazlea	Oinarrizko datua	Azken datua	Joera
Emakumeen kontrako biktimizazio-tasa (10.000ko hainbeste)	47,27	57,99	↓
Alkatetzetako emakumeen proportzioa (%)	25,20	33,07	↑
Goi-zuzendaritzako emakumeen proportzioa (%)	29,45	29,6	↑





GJH 6

Uraren eskuragarritasuna eta
kudeaketa jasangarria nahiz
guztiontzako saneamendua
bermatzea

GJH 6 - Edukiaren laburpena

Plangintza-tresnak

- Euskadiko Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2022-2027).
- Alerta eta behin-behineko lehorte-egoeretan jarduteko plan berezia.

EKINTZEN AURRERAPENA


GJH 6: Uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea


ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Hornidura- eta saneamendu-arloko jarduketak** (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak).
- **Uholdeen aurkako babesaren arloko jarduketak** (Eusko Jaurlaritza eta udalak). Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean ezarritakotik abiatuta, lehentasunezko obrak udalerriekin lankidetzan garatzea.
- **Urbetik** (Arabako Foru Aldundia). Uraren ziklo integrala hobetzea, hasi hornikuntzatik eta banaketa, saneamendua eta arazketa ere barne hartzen dituzten sistema digitalak garatuz.
- **Gasteizen uraren ziklo integrala digitalizatzea** (Gasteizko Udala). Hornidura-sarearen % 100 GIS baten bidez kontrolatzea, eroanbideak sistematikoki berritzea, harguneak modu optimoan egikaritzea, ihesak sistematikoki bilatzea eta kontagailu-parkea berritzea... sarearen errendimendu handiak lortzeko.
- **“Itsasoa hemen hasten da” kanpaina** (Bilboko Udala). Jende asko biltzen den lekuetan estolden ondoan informazio-plakak jartzea, itsas fauna eta flora babestearen garrantziaren berri emateko eta estolderia- eta saneamendu-sarea zainduz itsasoen eta ozeanoen kutsadura geldiarazteko eta murrizteko.

ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

Adierazlea	Oinarrizko datuak	Azken datua	Joera
Lurrazaleko ur-masen kalitatea (%)	41,3	48,5	
Ur eskaria biztanleko eta eguneko (litroak)	179,28	177,60	





GJH 7

**Energia eskuragarria, segurua,
jasangarria eta modernoa
bermatzea**

GJH 7 - Edukiaren laburpena

Legegintzako ekimenak

- 1/2024 Legea, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena.
- Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala.

Plangintza-tresnak

- Euskadiko Energia Estrategia (2030).
- Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana (2021-2024).
- Sektore publikoaren energia-arloko jarduketa-plana (2030).
- Hidrogenoaren Euskal Estrategia.

EKINTZEN AURRERAPENA

GJH 7: Energia eskuragarria, segurua, jasangarria eta modernoa bermatzea


ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Energia-Ekiola** (Eusko Jaurlaritza eta Mondragon Taldea). Herritarrek berek eguzki-parke txikien bitartez autokontsumorako izango den eguzki-energiaren sorkuntzan eta kudeaketan parte hartuko duten kooperatibak bultzatzea.
- **Energia-trantsizio justua sustatzeko eskualde-planak** (aldundiak eta udalak). Eskualdeetan eta udalerrietan eredu energetikoaren aldaketa bultzatzea, energia-trantsizio justua sustatu, energia-pobreziari aurre egin, energia-efizientzia hobetu eta energia berriztagarrien erabilera aurrera egingo duten planen bitartez.
- **Eraldaketa Komunitarioko Bulegoak** (instituzio artekoa). Energia-komunitateen zabalkunderako, laguntzarako eta aholkularitzarako bulegoak, lurraldean energia-komunitateen sorrera sustatzeko eta horiei lotutako sorkuntza fotovoltaiakoko instalazioetan, biltegiatze-sistemetan eta mugikortasun-zerbitzuetan inbertsioak egiteko laguntza-lerroak barne.
- **Itsas energia berriztagarrien teknologia berriak erakusteko eta balioztatzeko inbertsioetarako laguntzak** (Eusko Jaurlaritza).
- **Energia berriztagarriak inplementatzeko bideragarritasun-azterketetarako eta energia-efizientziako inbertsioetarako laguntzak** (Eusko Jaurlaritza).
- **Industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetan energia-auditoria integralak egiteko laguntzak** (Eusko Jaurlaritza).
- **Mugikortasun elektrikorako pizgarrien programa** (Eusko Jaurlaritza).
- **Autokontsumoari eta biltegiatzeari —energia-iturri berriztagarriak erabiliz—, eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarrien sistema** (Eusko Jaurlaritza).
- **Energy Intelligence Center (EIC)** (Bizkaiko Foru Aldundia). Bizkaia eta Euskadi energiaren eta trantsizio energetikoaren alorrean nazioarteko erreferentzia gisa posizionatzera zuzendutako proiektua, sektorearen lehiakortasuna —euskal industriaren funtsezko zutabea— eta gure enpresen presentzia globala finkatzen lagunduko duena.

- **Ibilgailu elektrikoentzako kargaguneak inplementatzea eta aparkaleku publikoetan kargatze-puntuak instalatzea** (udalak).
- **Autokontsumo kolektiboan oinarritutako deskarbonizazio industrialeko prozesuak** (Arabako Foru Aldundia). Industria-sektorea bultzatzea, enpresetan behar den deskarbonizazio-prozesuari dagokionez, industrialde txikietan hurbileko toki-ingurunetik datorren energia berriztagarri eskuragarria izateko aukera emanez.

ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

Adierazlea	Oinarrizko datuak	Azken datua	Joera
Energia-intentsitatea (Tep (milioi €))	93,40	85,79	↑
Biztanleko instalatutako eguzki-potentzia (kW), eolikoa (kW), hidraulikoa (kW), fotovoltaikoa (m ²)	99,36 727,50 797,03 109,18	202,90 697,51 786,71 377,06	↑





GJH 8

**Guztiontzako hazkunde
ekonomiko inklusiboa eta
jasangarria, enplegu eta lan
duina sustatzea**

GJH 8 - Edukiaren laburpena

Legegintzako ekimenak

·15/2023 Legea, Enpleguarena.

Plangintza-tresnak

- Enpleguaren Euskal Estrategia (2030).
- Enpleguaren Plan Estrategikoa (2021-2024).
- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia (2021-2025).
- Berpiztu, Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Programa (2020-2024).
- Erakundearteko Ekintzailletza Plana (2021-2024).
- Lanbide Hobetzen plana.
- Merkataritza 2030 estrategia.

EKINTZEN AURRERAPENA

GJH 8: Energia eskuragarria, segurua, jasagarria eta modernoa bermatzea


ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Enplegarritasuna hobetzeko ibilbide integralak** (Garapen). Gizarteratzea eta laneratzea bideratutako ibilbide integralen diseinuaren bitartez behar horiei aurre egin nahi dien proiektua.
- **Tokiko eta eskualdeko enplegu-planetarako laguntzak** (Eusko Jaurlaritza). Tokiko beharrei erantzuneko dieten enplegua sortzeko proiektuak abian jartzeko laguntza ekonomikoen bitartez tokiko esparruan enplegua eta enpresa-jarduera sortzeko ekimenak.
- **Enplegu-anezkek** (zenbait instituzio). Helburua da langabeak pertsonalki eta profesionalki aktibatzea, haien enplegarritasuna zeharkako kompetentzien eta trebetasun eskatuenean bidez hobetzea eta, gainera, arrakala digitala murriztea eta kompetentzia berdeak sustatzea. Langabe talde heterogeneoak biltzen dituzte, espezialisten orientazio eta gidaritzapean, haien lan-bilaketa lan-merkatuko azken joeretan oinarrituta eguneratzeko eta bideratzeko.
- **Euskal enpresetan langabe gazteak kontratatzeko Lehen Aukera programa** (Eusko Jaurlaritza).
- **Atzerrian enpresa-praktikak egiteko Global Training bekak** (Eusko Jaurlaritza). Gazteen nazioarteko prestakuntza eta mugikortasuna ahalbidetzeko programa. Horretarako, beren profil akademikoarekin erlazionatutako jarduerak eta proiektuak egingo dituzte, atzerrian lanbide-esperientzia irabazteko eta beren lanbide-jarduera betetzeko balio handiko ezagutzak, kontaktuak eta tresnak eskuratzeko.
- **Elkar-EKIN Lanean** (Gipuzkoako Foru Aldundia). Enplegua, gizarteratzea eta laneratzea sustatzea, laneratze ibilbide integratuak jorratuko dituzten programen, enplegu eta prestakuntzako programen eta lurraldean laneratze enpresak sortzea eta mantentzea bultzatzearen bitartez.
- **Zaindu/InguruarEKIN, ekintzailatza jasangarriaren sustapena** (Garapen). Jasangarritasunaren ikuspegitik proiektu eraldatzaileen garapena sustatu nahi duen programa, garapen sozialari, ekonomikoari eta ingurumen-garapenari dagokienez, eskualde bakoitzaren indarrekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatuta.

- **Ekintzailletza- eta berrikuntza-zentroa** (Arabako Foru Aldundia). Araban potentzial handiko ekintzailletza sustatzeko gaitasunak, ezagutza eta baliabideak artikulatzeko eta ekintzailletza-ekosistemaren hazkunderako trakzio-lana egitera bideratutako zerbitzuak emateko ekimena.
- **Ekonomia sozialean ekintzaile izateko laguntzak** (Eusko Jaurlaritzak).
- **Zorrotzaurreko Hiri Parke Teknologikoa** (instituzio artekoa). Hiri-parke teknologiko bat garatzea, 133.000 metro koadroko azalerakoa, adimen artifiziala eta Big Data bezalako teknologia berrien erabilera intentsiboan espezializatutako enpresak, enpresa-zerbitzu ezagutzan intentsiboak eta industriarako zerbitzu aurreratuak ezartzera bideratua.
- **Bono Denda programa** (instituzio artekoa). Hurbileko txikizkako saltokietan kontsumoa sustatzeko programa.
- **Merkataritza- eta ostalaritza-jarduera bultzatzea** (Gasteizko Udala). Sektorerako laguntza ekonomikoen programa integrala, merkataritzako, zerbitzu pertsonaletako eta ostalaritzako enpresa txikiak ezartzeko eta modernizatzeko —negozio-ekimen berrien ezarpenari bidea emateko proiektu sortu berrien tutoretza barne—, eta belaunaldien arteko erreleboa bermatuta ez duten merkataritza-enpresen transmisioa ahalbidetzeko.
- **Nagusi Intelligence Center** (Bizkaiko Foru Aldundia). Zahartzearen, osasunaren eta iraupen luzeko zainketen inguruko jarduera ekonomikoa bultzatzea helburu duen zentroa. Administrazio publikoaren, sektore pribatuaren eta unibertsitatearen arteko topagune gisa jarduten du, biztanleriaren zahartzearen erronkak eta erronka demografikoak planteatzen dituzten desfioei erantzuteko enpresa- eta ekintzailletza-proiektu berriak sortzeko.
- **Lurra** (Arabako Foru Aldundia). Arabako Errioxako sektore ekonomiko nagusia (mahastizaintza eta ardogintza) sostengatzen laguntzeko eta mahastizaintzako produkzioa merkatuaren egungo exijentzietara bideratzen eta egokitzen laguntzeko proiektua.

ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

Adierazlea	Oinarrizko datuak	Azken datua	Joera
Langabezia-tasa (%)	15,7	7,8	
Biztanleko BPG errealaren urteko hazkunde-tasa (%)	2,9	2,1	





GJH 9

**Azpiegitura erresilienteak
eraikitzea, industrializazio
jasangarria bultzatzea eta
berrikuntza sustatzea**

GJH 9 - Edukiaren laburpena

Plangintza-tresnak

- Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (2030).
- Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko Plan Estrategikoa (2021-2024).
- Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategia (2025).
- Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plan Estrategikoa (2021-2024).

EKINTZEN AURRERAPENA

GJH 9: Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio jasangarria bultzatzea eta berrikuntza sustatzea


ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK


- **Abiadura Handiko Trena eta Euskal Y-a** (Eusko Jaurларitza). EAEko hiriburuak prestazio handiko linea baten bidez elkarrekin eta Irunen barna Frantziako mugarekin lotuko dituen trenbide-trazadura garatzea, Madrilekiko abiadura handiko lineari jarraipena emateko. Azpiegitura eta Garraio Plan Estrategikoaren prestazio handiko sarearen eta Europa Barneko Abiadura Handiko Trenbide Sareko Korridore Atlantikoaren parte izango da.
- **Euskadiko Inbertsio Estrategikoen Plana (2022-2024)** (Eusko Jaurларitza eta aldundiak). Programa horrek 529 milioi euroko inbertsioa egiten du izaera eraldatzailea, espezializazio adimendunaren estrategiarekiko lerrokadura eta instituzioen arteko lankidetzeta eta lankidetzeta publiko-pribatua bereizgarri dituzten proiektuetan.
- **Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea amaitzea** (Bizkaiko Foru Aldundia).
- **Hazitek, enpresetan I+Ga bultzatzeko programa** (Eusko Jaurларitza). Euskal enpresen industria-ikerketan eta garapen esperimentalean laguntzea.
- **Trantsizio Digitalerako Bulegoen Sarea** (Garapen).
- **Agenda digitalak** (zenbait instituzio).
- **Hibridalab, berrikuntza irekiko zentroa** (Arabako Foru Aldundia). Berrikuntzaren bila esparru, diziplina eta jakintzen arteko gurutzatzea eta hibridazioa bultzatzeko espazioa.
- **Ekintzailetzaren Nazioarteko Zentroa** (Bizkaiko Foru Aldundia). Talentu ekintzailea eta berrikuntza irekia kontzentratzeko eta bultzatzeko huba, startupen, enpresen, inbertitzaileen eta administrazioaren arteko lankidetzan oinarritua.
- **Intelligence Center-en Sarea** (Bizkaiko Foru Aldundia). Bizkaiko enpresek mugikortasun jasangarria, manufaktura aurreratua, energia edo zahartzea bezalako esparruetan esku artean dituzten erronka estrategikoetan laguntzeko bikaintasun-zentro sektorialen sarea.

- **Govtech Bizkaia** (Bizkaiko Foru Aldundia). Berrikuntza irekiko ekimen horren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiak entitate hornitzaile ez-tradizionalen soluzio berriak identifikatu, gidatu eta eskalatzen ditu, hala nola startup, scaleup eta ETE digitalenak, esparru teknologikoko eragile berritzaileenekiko lankidetzat publiko-pribaturako espazio berriak garatzen laguntzeko.
- **ADI Data Center** (maila anitzekoa eta eragile anitzekoa). Enpresa eta instituzioen eraldaketa digitalean laguntzeko goi-mailako datu-zentroa.
- **Aiara Industrial Lab** (Arabako Foru Aldundia). Eskualdeko industria-ehunaren eta garapen-agentzia lokalen eta foralen arteko lankidetzat bultzatzeko ekimena. Horretarako, lankidetzat foro iraunkorra ezarriko da, tokiko industriak aukera izan dezan bere beharrak planteatzeko, eta eskualdearen garapen lehiakorra ahalbidetzeko beharrezkotzat jotzen dituen proiektuak bultzatzeko.
- **Ekonomia-jarduerarako kalitatezko espazio lehiakorrak sustatzeko funtsa** (Bizkaiko Foru Aldundia).
- **Etorkizuneko industria eta ekonomia emergenteak** (Gipuzkoako Foru Aldundia). Gipuzkoaren indarrak abiapuntu hartuta, asmoa da etorkizuneko industrian estrategikotzat jotzen diren sektoreetan aurrera egitea (teknologia kuantikoak, terapia geniko aurreratuak, zibersegurtasuna...), eta, horretarako, espezializazio adimenduna eta ekintzailetza sustatzea, esperimentazio- eta ikaskuntza-espazioen bitartez.
- **Donostia, gizartean eragina duen Zientziaren eta Jakintzaren Hiria** (Donostiako Udala). Donostia nazioarteko erreferente izaten jarraitzea zientzian, ezagutzan, berrikuntzan eta ikerketan, donostiarrentzat aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzeko ardatz bultzatzaile gisa. Ekipamendu berriak (elektromugikortasuneko poloa) eta lehendik dauden ekipamenduak handitzea.
- **Govtech ekimenak** (foru-aldundiak). Administrazioen erronkei soluzio digital berriak hurbiltzeko berrikuntza-espazioak.
- **Ikerbasque programa** (Eusko Jaurlaritzak). Mundu osoko ikertzaileak erakarri, berreskuratu eta atxikitzearen bidez ikerketa zientifikoa garatzen laguntzeko programa.

ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

Adierazlea	Oinarrizko datuak	Azken datua	Joera
Ikerketa eta garapeneko gastuak BPGarekiko proportzioan (%)	1,86	2,08	
Goi-ertaineko eta goi-teknologiako jardueren dagokien manufaktura-sektorearen balio erantsi osoaren proportzioa (%)	32,2	32,4	





GJH 10

Herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea

GJH 10 - Edukiaren laburpena

Legegintzako ekimenak

- 2/2022 Legea, Gazteriarena.
- 2/2024 Legea, Haur eta Nerabeena.
- 4/2024 Legea, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

Plangintza-tresnak

- Gazteen emantzipazioa ahalbidetzeko 2030 Euskal Estrategia eta V. Gazte Plana (2022-2026).
- EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa (2023-2026).
- Adinekoekiko Euskal Estrategia (2021-2024).
- Euskadiko Haur Bermearen 2030erako Estrategia.
- Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Euskal Estrategia (2022-2025).
- Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia (2022-2026).
- Migraziorako Euskal Itun Soziala.
- Herriartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana (2022-2025).
- Egoera ahulean dauden adingabeak eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko Euskarri Estrategia partekatua.

EKINTZEN AURRERAPENA

GJH 10: Herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea


ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen inklusio soziolaboralerako ibilbideak** (Eusko Jaurlaritza eta udalak).
- **Emantzipa programa** (Eusko Jaurlaritza). 25 eta 29 urte bitarteko gazteen emantzipaziora bideratutako zuzeneko laguntza.
- **GAZ, gazteekin emantzipazio-prozesuetan elkarlanean jarduteko laguntza-zerbitzua** (Eusko Jaurlaritza).
- **Gaztelagun programa** (Eusko Jaurlaritza). Gazteei zuzendutako etxebizitza alokatzeko laguntzak.
- **Trapezistak, Euskadin laguntzarik ez duten migratzaile gazteak gizarteratzeko eta helduarora igarotzeko prozesuak bultzatzeko programa** (Eusko Jaurlaritza).
- **Enplegu Zentro Berezietan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko laguntzak** (Eusko Jaurlaritza).
- **Ohiko lan-merkatuan desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko laguntzak** (Eusko Jaurlaritza).
- **Desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuak** (Gipuzkoako Foru Aldundia). Desgaitasuna —batez ere intelektuala— duten pertsonen etxebizitza-zerbitzua ematea eta aldi baterako egonaldiak eskaintzea.
- **Desgaitasuna duten pertsonentzako eta osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonentzako zerbitzuak** (Arabako Foru Aldundia). Desgaitasuna —batez ere intelektuala— duten pertsonentzako eta osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonentzako aldi baterako egonaldiak.
- **Svisual, herritarrentzako arreta-postuetan eta Udaltzaingoan zeinu-hizkuntza bidez interpretatzeko zerbitzua** (Gasteizko Udala).

- **Begirada Aktiboa** (Bilboko Udala). Bilbon bakarrik bizi diren adinekoen parte-hartze eta interakzio soziala sustatzeko proiektua.
- **Piztu zure auzoa** (Gasteizko Udala). Zaurgarritasun- eta/edo hauskortasun-egoerak bizi dituzten adinekoak harremanetan jartzen dituen eta herritarrak bakardadeari aurre egiteko helburuarekin inplikatzeko dituen programa.
- **Araba a Punto** (Arabako Foru Aldundia). Adineko askok pairatzen duten nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko eraikuntza kolektiboko estrategia bat bultzatzeko ekimena.
- **Familia-harrera espezializatuaren eredua** (Gipuzkoako Foru Aldundia). Behar edo inguruabar bereziak dituzten adingabeen familia-harrera espezializatua, besteren familia batean egiten dena, baldin eta familia horretako kideetako batek, gutxienez, eginkizun hori betetzeko berariazko kualifikazioa, esperientzia eta prestakuntza baditu.
- **Eusko Jaurlaritzak NBE Emakumeak gidatutako Zainketen aldeko Aliantza Globalarekin bat egitea.**
- **Aporofobiaren kontrako borroka** (Gasteizko Udala). Zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen oinarritzko premien estaldura modu integratuan hobetzea da asmoa.
- **Harreraguneak** (Eusko Jaurlaritza eta udalak). Migratzaileak hartzeko eta orientatzeko espazio espezializatuak.
- **Herri Txiki Aukera Handi** (Bizkaiko Foru Aldundia). Lurraldeko udalerrri guztiek zerbitzu publiko berak —bai gizarte-zerbitzuak bai mugikortasunari, aisiari, kulturari edo kirolari eta Internet sarbideari lotutako zerbitzuak— irispidean izan ditzaten bultzatzeko ekimena.
- **Landa-despopulazioa saihesteko zerbitzuen plataforma** (Arabako Foru Aldundia). Plataformak oinarritzko zerbitzuetarako eta produktu-hornidurarako sarbidea ematen die Arabako landa-eremuan bizi diren pertsoneri, bertan jarraituko dutela bermatzeko.
- **Eraberean**, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako sarea, arraza-, etnia- edo nazio-jatorriak, sexu-orientazioak edo -identitateak eta genero-identitateak eragindako diskriminazioari aurre egitea helburu duena.

ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

Adierazlea	Oinarritzko datuak	Azken datua	Joera
20/80 ratioa, familia-errenta erabilgarriaren desberdintasunarena (%)	8,9	9,6	
Gini indizea (indizea)	27,10	26,88	





GJH 11

**Hiriak inklusiboagoak,
seguruagoak,
erresilienteagoak eta
jasangarriagoak izatea lortzea**

GJH 11 - Edukiaren laburpena

Legegintzako ekimenak

·80/2022 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituena.

·11/2023 Legea, Euskadiko mugikortasun jasangarriarena.

Plangintza-tresnak

·Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia eta Ekintza Plana (2021-2024).

·Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Plana (2030).

EKINTZEN AURRERAPENA

GJH 11: Hiriak inklusiboagoak, seguruagoak, erresilienteagoak eta jasangarriagoak izatea lortzea


ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Opengela** (Eusko Jaurlaritza eta udalak). Euskadin hiri-berroneratzea hedatzea xede duen proiektua. Horretarako, auzokideei arreta emateko leihatila bakarraren modura jardungo duten auzo-bulegoak sortzea sustatuko du.
- **Prezio eskuragarriko alokairuko etxebizitza berria sortzea** (Eusko Jaurlaritza eta udalak).
- **Etxebizitzak birgaitzen laguntzeko programa** (Eusko Jaurlaritza).
- **Hiri barruko eta hiriarteko lehorreko garraio publikorako hobariak** (instituzio artekoa).
- **MUBIL, Mugikortasun Adimendun eta Jasangarriaren Poloa** (Gipuzkoako Foru Aldundia). Euskadin mugikortasun adimendun eta jasangarriaren arloko ekimenak bultzatzen dituzten eragile publiko eta pribatuen ahaleginak biltzen dituen ekimena, Gipuzkoa eta Euskadi mugikortasun adimendun eta jasangarriaren esparruan garrantzizko eragileak izatera irits daitezzen.
- **Vitoria-Gasteiz Araba Mobility Lab** (Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udala). Hiri-mugikortasuneko eta logistikako berrikuntza-poloa, soluzio berriak testatzeko eta Arabako ehun ekonomikoaren lehiakortasuna bultzatzeko.
- **Hiri barruko eta hiriarteko bidegorriak** (foru-aldundiak eta udalak). Bizikletaren jolas-erabilera eta egunerokoa eta oinezkoen joan-etorriak soluzio partekatuen zein bereizien bidez sustatzeko bizikleta-bideak.
- **Metro Bilbao hedatzea** (Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia).
- **Gasteizko tranbia hedatzea** (instituzio artekoa).
- **Gasteizko Elektromugikortasuneko Zentroa** (Gasteizko Udala).

- **Erdi Aroko hirigunearen naturalizazioa** (Gasteizko Udala). Erdi Aroko hirigunea berdatzera eta naturalizatzera zuzendutako jarduketak, hiriko bero-uharteak arintzea, osasuna ahalbidetzea, ingurumena hobetzea eta berdeguneen erabilera publikoa sustatzea lortzeko.
- **Eskola-patioen naturalizazioa** (Gasteizko Udala). Eskola-patioak hiriko sistema berdearen elementu gisa naturalizatzeko proiektua, leku inklusiboagoak, hezkidetzara bideratuagoak, jasangarriagoak eta naturalizatuagoak izan daitezzen.
- **Bizkaia Gara, boluntarioen sare zibila** (Bizkaiko Foru Aldundia).
- **Turismoa, helmuga zaintzea** (Donostiako Udala). Hiria turismo-helmuga jasangarri eta donostiarrentzat onuragarri gisa zainduko duten neurriak abian jartzea, helmugaren eliazkotasunean eta bikaintasunean oinarritutako eredu historiko baten bitartez.
- **Herrandarren kalean eta bere ingurunean espazio publikoa naturalizatzea** (Gasteizko Udala). Proiektuaren xedea da bero-uhartearen efektua murriztea, berdegune gehiago eta asfalto gutxiago izanik.

ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

Adierazlea	Oinarrizko datuak	Azken datua	Joera
Etxebizitzan gabezia jakin batzuk dituzten familia-etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa (%)	11,80	12,43	↓
Etxebizitzan gabezia jakin batzuk dituzten familia-etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa (%)	6,89	6,95	↓
PM2,5en batez besteko maila hirietan, biztanleriaren arabera haztatuta (µg/m³)	10,07	9,49	↑





GJH 12

Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea

GJH 12 - Edukiaren laburpena

Legegintzako ekimenak

- 1/2024 Legea, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena.
- 4/2023 Legea, kontsumitzaile eta erabiltzaileen Estatutuarena.

Plangintza-tresnak

- Euskadiko Ekonomia Zirkularraren 2030erako Estrategia.
- Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Plana (2030).
- Kontsumobideren Plan Estrategikoa (2022-2024).

EKINTZEN AURRERAPENA

GJH 12: Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea


ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Basque Ecodesign Center** (Eusko Jaurlaritza). Euskal industria-ehunera transferi daitekeen ekonomia zirkularraren inguruko ezagutza sortzen lan egiten du zentro horrek, Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategian ezarritako lehentasunezko esparruetako berrikuntzaren bitartez.
- **Tokiko esparrutik ekonomia zirkularra eta lehiakortasuna bultzatzea** (Udalsarea 2030). Proiektu horren helburua da ekonomia zirkularraren kontzeptua tokiko eta eskualdeko esparruan praktikan jartzea, tokiko munduari aplikatzekoak diren orientazio praktikoak garatuz eta partekatuz, ekonomia zirkularra hainbat mailatan bultzatzeko eta sustatzeko, bai administrazio publikoaren beraren esparruan, bai gizarte- eta enpresa-ehunean inplementatzea ahalbidetuz.
- **Ekonomia Zirkularraren Huba** (Gasteizko Udala). Hub horrek tokiko arlotik bultzatzen du Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategia (2030), Gasteizko Udalaren beraren estrategia, "Gasteizko Ekonomia Zirkularraren Estrategia (2030)" izenekoa, abiapuntu hartuta.
- **"Elikagai-xahuketarik ez", jatetxeetan elikagai-xahuketa murrizteko gida** (Gasteizko Udala).
- **Konpondu proiektua** (Gasteizko Udala). Proiektu horrek herritarren egungo kontsumo-ereduaren aldaketa sustatzen du, konponketaren tokiko sektorearen bitartez produktuen bizitza baliagarria luzatzeko.
- **Ingurumen Jasangarritasunaren arloko Berrikuntzarako Enpresa Kasu Praktikoek Bankua** (eragile anitzekoa).
- **GK Green Fashion eta GK Recycling klusterrak** (Gipuzkoako Foru Aldundia). Jasangarritasuna helburu duten bi enpresa-klusterri laguntza eta bultzada ematea: GK Green Fashion klusterra (moda jasangarriaren klusterra), modaren industriaren ingurumen-aztarna murrizteko; eta GK Recycling klusterra (berrerabiltzeko eta birziklatzeko klusterra), ideiak trukatzeko eta birziklatze-aukera berriak detektatzeko sortua.
- **Biderbi** (Arabako Foru Aldundia). Produkzio ekologikoa eta jasangarria sustatzeko ekimena, ingurumenarekin harmonian lan egingo duten nekazaritza eta abeltzaintza sustatzen dituenak.

- **“Deskarbonizazio industrialeko programa”** (Eusko Jurlaritzza). Deskarbonizazioaren bidez ekoizpen-prozesu industrialetan ingurumenaren babes-maila hobetzen duten inbertsioak egiten dituzten enpresa industrialentzako dirulaguntzen programa.
- **“Pentsatu tokikoan”**. Tokiko merkataritzak gizartean duen funtsezko rolaren balioa nabarmentzeko kanpaina (Eusko Jurlaritzza).

ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

Adierazlea	Oinarrizko datuak	Azken datua	Joera
Materialen kontsumoa BPGaren arabera (T (milioi €))	311,8	264,1	↑
Sortutako hondakin arriskutsuak per capita (kg)	150,82	157,79	↓
Birziklatutako hiri-hondakinen proportzioa, sortutako eta tratatutako hiri-hondakin guztiekiko (%)	36,44	47,44	↑





GJH 13

Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko

GJH 13 - Edukiaren laburpena

Legegintzako ekimenak

- 1/2024 Legea, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena.
- 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.
- 11/2023 Legea, Euskadiko mugikortasun jasangarriarena.

Plangintza-tresnak

- 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia.
- Ingurumeneko V. Esparru Programa (2030).
- Euskadiko Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana (2021-2024).
- Ingumena Ikuskatu eta Kontrolatzeko Plana (2019-2026).
- Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia (2030).

EKINTZEN AURRERAPENA

GJH 13: Neurri urgenteak hartzea klima-alaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko


ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK


- **Alkateen Klima eta Energia Ituna** (Eusko Jaurларitza eta udalak). Ekimenak honako hauek sustatzen ditu: klima eta energiaren tokiko planak udal- eta eskualde-mailan hedatzea; udalerriko eta/edo eskualdeko BEG-inbentarioak eta udalen eta eskualdeko entitateen karbono-aztarna kalkulatzeko urteko tresnak diseinatzea, mantentzea eta eguneratzea; eta EAEko udalerriek trantsizio energetikoarekin eta klima-alaketarekin hartutako konpromisoa sozializatzea.
- **100 Hiri Adimendunen eta Klimatikoki Neutroen Europako Misioan parte hartzea 2030ean** (Gasteizko Udala). Hiri Adimendunen eta Klimatikoki Neutroen Misioak aukeratutako ehun hiriak beste guztien erreferente izango diren esperimentazio- eta berrikuntza-zentro bihurtu nahi ditu. Modu horretan, hiri horien adibideari jarraituz, Europako hiri guztiak karbono-neutroak izatea lortu nahi du 2050erako.
- **Hiri barruko autobusen elektrifikazioa** (udalak).
- **Azpiegitura berdeen sareak** (foru-aldundiak eta udalak).
- **Uholdeen Prebentziorako Plana** (Gasteizko Udala).
- **Garapen jasangarria sustatuko duten ekintzak gauzatzen dituzten toki-entitateentzako laguntzen programa. Klima-alaketaren ildoak** (Eusko Jaurларitza).
- **Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa** (2030) (Eusko Jaurларitza). Klima-alaketaren kontrako borroka, baliabide naturalen erabilera efizientea edo ekoberrikuntza bezalako helburuak lortzeko zeharkako tresna da programa hori.

- **Klima-aldaketarako tresna eta lanabesen kita, administrazio publikoei, enpresei eta herritarrei klima-aldaketak sortzen dituen inpaktuetara egokitzen laguntzeko** (Eusko Jaurларitza).
- **Eskolako 2030 Agenda eta Lanbide Heziketako 2030 Agenda programak** (Eusko Jaurларitza).

ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

Adierazlea	Oinarrizko datuak	Azken datua	Joera
Unitate egoiliarren berotegi-efektuko gasen guztizko emisioak BPGko unitate bakoitzeko (CO ₂ kg baliokide)	0,28	0,21	↑
Berotegi-efektuko gasen emisioa, 2005. urtearekin alderatuta (%)	-23,82	-27,37	↑





GJH 14

**Ozeanoak, itsasoak eta itsas
baliabideak mantentzea eta
modu jasangarrian erabiltzea**

GJH 14 - Edukiaren laburpena

Legegintzako ekimenak

•1/2024 Legea, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena.

EKINTZEN AURRERAPENA

GJH 14: Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea


ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Arrantza jasangarria sustatzeko eta Euskadiko arrantza- eta akuikultura-sektorean belaunaldi-erreleboa errazteko laguntzen programa** (Eusko Jaurlaritza). Laguntza horien helburua da garapen teknologikoan, energia-efizientzian eta giza kapitalean oinarritutako sektore jasangarri eta berritzaile bat sustatzea, eta arrantzan eta akuikulturan belaunaldi-erreleboa erraztea, sektorearen etorkizuna bermatzeko.
- **Itsasontziek arrantza-aparailu tradizionalekin harrapatutako berdelarentzako Eusko Labela** (Eusko Jaurlaritza). Ekimen horren bitartez Eusko Labelarekin identifikatuko da itsasontziek Euskadiko arrantza-aparailu tradizionalekin harrapatutako oso kalitate handiko berdela.
- **Portuetako Udal Kontseiluak eratzea** (instituzio artekoa). Kontseiluak portuen arloko aholkularitza-, kontsulta- eta eztabaida-organoak dira, eragile instituzionalak, sozialak, arrantza-arlokoak, kofradiak eta merkaturatzaileak biltzen dituztenak.
- **Oarsoaldea Urdina Huba, Ekonomia Urdinaren erronkak eta aukerak identifikatzeko espazio teknologiko lehiakorra sortzeko gunea** (instituzio artekoa). Hub horren helburua da Ekonomia Urdinaren erronkak eta aukerak identifikatzeko espazio teknologiko lehiakorra sortzea —instituzio eta enpresena—. Horretarako, jarduera ekonomikoa eta garapen soziala bultzatuko ditu, itsasoaren eta haren baliabideen ustiapen jasangarriagoan aurrera egingo duten proiektuen bitartez.

- **Gipuzkoako Itsasertzeko Bideometria Foru Sarea** (Gipuzkoako Foru Aldundia). Gipuzkoako kostaldean zehar bideokamerak dituzten instalazioak, hondartzak hiru aplikaziotan oinarrituta monitorizatzen dituztenak: erabiltzaile kopurua, segurtasuna eta morfodinamika.

ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

Adierazlea	Oinarrizko datuak	Azken datua	Joera
Bainatzeko uren kalitatea (%)	74,13	89,28	





GJH 15

**Basoak modu jasangarrian
kudeatzea, basamortutzearen aurka
